

Barrena



Deba, animazio sorkuntzaren erakusleiho

Animazio analogikoa aldarrikatu eta artisau-sorkuntzako prozesuen balioa nabarmentzea du helburu aurtten Animadeba Nazioarteko Animazio Jaialdiak. Bihar arte, askotariko kultur proposamenak izango dira aukeran / 17

Lara Bellon –ikertzaile artistikoa eta zinema-programatzailea–, Hugo Covarrubias –zuzendari txiletarra eta aurtengo gonbidatua–, Aitor Oñederra -Animadebako zuzendaria–, Spela Cadez –animazio zinemako zuzendari eta ekoizle esloveniarrak, eta aurtengo gonbidatu berezia– eta Jose Luis Agreda –ilustratzailea eta zuzendari artistikoa, eta aurtengo omendua–. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

HEZKUNTZA

Ikasturtea Eskola Txiki propioan hasi dute Itziarko haurrek, ametsa egia bihurtuta

Eskola txikien izaerari eta balioei eutsi, eta Itziarko eskola "irekia, parte-hartzailea eta bizia" izateko erronka bere egin du zuzendaritzak / 19



Itziarko haurrak, eskola atarian. ITZIARCO ESKOLA TXIKIA

HIRIGINTZA

Hamasei metroko 58 piloterekin sendotu dute Errezabalgo mendi magala Elgoibarren / 6



ASIER ORBEA

ARTEA

Bigarren murala margotu du Udane Juaristik Soralezeko Txurrukenen, lau irudirekin / 15

FUTBOLA

"Beti ikusi dut neure burua 2. Mailan eta lehen taldean jokatzeko gai"

SD Eibarren talde nagusiarekin debuta egin du Eric Perez 25 urteko aurrelari ermuarrak Bigarren Mailan, bi urtez utzita jokatu ostean / 9



Eric Perez, SD Eibarrekin kontratua sinatu zuen egunean. SD EIBAR

NIRE USTEZ

Supremazistak



RIKARDO IDIAKEZ

Oldar adina koldar dabiltzan horiek izan beharko dute, bai, arrazoi-pusketaren bat, ezta? Alegia, diotenean batzuok izan nahi dugula gehiago bestetzuok baino; zergatik-eta badugulako aho-senetik munduan pausatzeke zera bat. Eta, diote, eure, horrek ez digula inor baino gehiago izateko eskubiderik ematen eta, ahor, arrazoiñoa: berez, izatez, alegia, ez gara-eta inor baino gehiago ez izan ezta izango ere.

Izatez ez baina bai, ordea, jakitez: eta esatez, ematez, aditzez, sentitzez eta egotez ere bai. Alegia, guri urteten jakuna badela nabarmen gehiago eurei urteten jakiena baino. Euskara bakarrik ez; Matematika da hori. Eta Filosofia, Fisika eta Giza Legea ere bai.

"Gure aitak zioen eran, 'aittu ondo belarritik' esatean entzungorrenarenak egitea adinakoa izango ahal da bi belarrietatik entzuten asmatzea"

Tamalik ere ez dugu falta, ordea, eta tonto-harrotzeko joera ere ondo geurea izan dugu boladetan, herriko plazan ezelako sasikristauen erdarei diosalean, geureari zakur-makur.

Baina, heretikook pausoa libratzera goaz eta ze demonio: infernuko deabruak ere ez du egundo epairik ebatziko bide xuxenetik goazela ukatuko digunik. Gure aitak zioen eran, "aittu ondo belarritik"

esatean entzungorrenarenak egitea adinakoa izango ahal da bi belarrietatik entzuten asmatzea.

Bihar bertan sartuko gara alaba eta biok igogailuan eta bakarren batek galdetuko dio txikiari ea katuak mingaina jan dion. Hark begiradarekin erantzungo dio. Eta nik alabari esango diot ezetz, mingaina eta mundua ederki asko dantzatzan dituela. Eta orduan bai, denok egongo gara parez pare: hiru supremazista, hiru egoskor, zein baino zein.

GUTUNAK

Debako Gudarien Plaza

INA OIARTZABAL ERRASTI

DEBA

Orain dela urte batzuk Arakistain Plazan egin zen eraldaketarekin, herritar gehienok oso gustura gelditu ginela pentsatzen dut –zer esanik ere, aurretik egon zen gasolindegia ezagutu genuenok–. Gudarien Plazaren azken eraldaketa honek, aldiz, ez dut uste horrenbesteko babesa lortuko duenik. Zeinek proposatzen du eta nola erabakitzen dira horrelako aldaketa potoloak?

Diotenez, eraldaketa honen helburu nagusietako bat, oinezkoentzat ingurunea sortuz, Estalitako pasabidearen eta Gudarien Plazaren arteko integrazioa da. Baina nola integratu daiteke, trafiko ikaragarria duen N-634 tartean egonda? Estalitako paseoaren alboan errepideari itsatsita egin duten espaloï berriak segurtasuna bermatuko al du? Eta ez al litzateke bertan txertatu beharko Mendarorako noranzkoan beste autobus geltokia?

Espazio berri hau polita geldituko da, eta itxurazko integrazio estetikoarekin lortuko du, baina ikuspuntu praktiko eta funtzional batetik begiratuta askorentzat galera handia dakarrela pentsatzen dut. Azken finean, espazio horrek auto gidariei eskaintzen zien dinamismoa galduko du. Badirudi eraldaketa hau erabaki eta diseinatu duenak Deban sekula autorik erabili ez duela

edota azken 20-30 urteetan bertan bizi izan ez dela. Autobusen parada bertan txertatzea oso ideia egokia iruditzen bazait ere –jakinda Plazari metro bat edo bi kenduz errepideak espazioa irabaziko lukeela–, Deban, beste herri gehienetan ez bezala, esertzeko banku eta zuhaitzez oso ondo hornituta gaudela pentsatzen dut –Gudarien Plazatik bertatik 50-100 metrora nahi beste ditugu–. Hori bai, proiektu hau kostatu den zati batekin, gure zumardiko bankuak txukundu, pintatu edo banku berri erosoagoak ipiniko nituzke.

Herritarron ongizatea bilatzea ezinbesteko da, baina orain arte Gudarien Plazak eman dizkigun aukera funtzionalak galtzeak ongizate bera kaltetu dezakeela ere uste dut. Iruditzen zait autoa erabiltzen dugun guztiontzat herriaren erdi-erdian minutu batzuetarako autoa uzteko aukera ez izatea, bertan noranzko-aldaketa erraz egiteko lekua galtzea edota jendea autoan jasotzeko eta bertan lagatzeko espazio eroso eta seguru bat ez izatea, atzerapauso ikaragarria dela.

Txakurrei buruz

M.C.E.A.

ELGOIBAR

Elgoibarren txakur asko dago. Batzuk lotuta eta beste batzuk solte ibiltzen dira, baina kaka eta txiza egitera denak kalera ateratzen dituzte. Ondorioz, etxeetako atari guztietan txiza eta kaka antza zikina dago; nazkagarria, benetan. Uda honetan egin dituen bero

hauekin, gainera, bikoitza igartzen da. Ez litzateke gaizki egongo txakur jabeak ur botila bat eramatea soinean, eta txakurrak pixa egiten duen lekuan txorrostada bat ur botatzea. Baina txakurrek kaka ere egiten dute; kalean, lorategietan, pasealekuetan... eta jabe batzuek jasotzen dute kaka; baina beste askok, ez. Dagokionari: txakurrengatik zergarik ordaintzen al da? Nire iritziz, zerbait ordaindu egin beharko litzateke, txakurren zikinkeriak eta jabeen arduragabekeriak zuzentzen aritzeko gogorik ez baitaukat.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhua Andonegi, Izaro
Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhua Andonegi,
Ander Gomez, Asier Orbea,
Egoitz Unamuno, Garazi
Mendieta, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zalao Arnaiz,
Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia
BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala





Aitzol Urain, oliba-hezurra botatzen. AINHOA ANDONEGI



Txapela jaurtitzen. A.A.



Jolas tradizionalak, umeentzat. M.A.



Mus txapelketa ere egin zuten zapatuan. MIKEL ASKASIBAR.

Jaia eta lehia izan da San Antolin jaietan

Asteburu betea izan dute Arriaga auzoan, eta jai giroa izan da nagusi

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR
San Antolin Eguna izan ohi da irailaren 2a, eta horren harira ospatzen dituzte festak Arriaga auzoan. Urtero bezala, egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek, eta jai giroan pasatu dute asteburua.

Tradizio bilakatu den oliba-hezur eta txapel jaurtiketarekin ekin zioten asteburuari, bari-kuan, eta gogor jardun zuten partaideek. Hiru kategoria bereizi zituzten: umeak, emakumeak eta gizonak.

Umeen mailan hamaika lagun-ek hartu zuten parte. Txapela jaurtitzen Enzo Astigarraga izan zen irabazlea, 15,33 metrorekin, eta oliba-hezurra urrunen jaurti zuena, berriz, Oinatz Ansola izan zen, 8,70 metrorekin.

Emakumeen kategorian 24 partaide izan ziren. Ainhoa Andonegik irabazi zuen txapel

jaurtiketa, 14,23 metroko distantziarekin, eta, oliba-hezurra 10,85 metrora botata, Aneitz Arrona izan zen onena.

Gizonezkoetan, azkenik, 40 parte-hartzaile aritu ziren, eta, ia urtero moduan, Mendarotik etorritako Aitzol Urain izan zen irabazlea txapel jaurtiketan, txapela 18,12 metroko distantziara botata. Oliba-hezur jaurtiketan, bestalde, Iñigo Astigarraga izan zen onena, 15,44 metroko distantziarekin.

Txapelketa horiek amaitu ostean, bertso-poteoa egin zuten, Iker Zubeldiarekin eta Julio Sotorekin, eta, ondoren, denek elkarrekin afaldu zuten. Gauean, erromeria izan zen.

Zapatuan, jolasa eta jokoa uzartu zituzten. Etxeko txikienak jolas tradizionaletan ibili ziren: puxikak apurtzeko jolasa egin zuten, eta arrautza eroaten zein

aulki jokoan ere egin zuten jolas. Nagusiagoentzat, berriz, txinga eroatea eta patata-tortilla eta mus txapelketa izan ziren. Txingetan Itxaso Irazabal eta Leire Uranga nagusitu ziren; mus txapelketan Gaizka Raposeiras eta Nerea Urangak osatutako bikoteak irabazi zuen; eta pultsuan ere Gaizka Raposeiras izan zen onena; patata-tortillarik onena, bestalde, Amaia Alonsok eta Martxelo Mendizabalek egin zuten.

Errifa
Errifaren zozketa egin zuten, jaiak amaitzeko, eta jakinarazi dituzte zenbaki saridunak. Lehen saria produktuz beteriko orgatila bat da; zenbaki sariduna 7.124 izan da, eta erreserbakoa, 601. Bigarren saria 500 euro da; 255 izan da zenbaki irabazlea, eta ordezkaria, 573.

Irailaren 18an amaituko da begirale ikastaroan izena emateko epea

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR
Joan den ikasturtean begirale ikastaroak izandako arrakasta ikusita, ikasturte honetan ere antolatzea erabaki dute Debabarreneko udalek, eta irailaren 18ra arte dago izena emateko aukera.

Ikastaroa euskaraz izango da, eta ikasleek 18 urte beteta izan beharko dituzte atal teorikoa amaitzen denerako; hau da, 2027ko ekainaren 30erako. Urrian hasiko da ikastaroa, eta 150 orduko atal teorikoa egin beharko dute, lehenik. Ondoren, berriz, 160 orduko praktikak. Eskolak larunbatean izango dira, 09:30etik

18:30era, eta, horrez gain, ikasturtean zehar asteburu osoko hiru jardunaldi ere egingo dituzte.

Ikastaroaren prezioa 300 eurokoa da, baina Debabarrenean erroldatuta daudenek prezioaren erdia ordainduko dute. Ikastaroa bukatzen dutenek Eusko Jaurlaritzak homologatutako *Haur eta gazteen aisialdirako begirale* titulu ofiziala eskuratu dute.

Izena emateko interesa dutenek webgune honen bitartez egin beharko dute: <https://labur.eus/debabarrenabegirale26>.

Informazio gehiagorako, Udaleko Euskara Sailera jo daiteke (943 74 43 66).

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

EUSKARA

PAUSO BATERA

Matrikula irekia irailaren 23ra arte
IKASTAROAK
Aurrez aurrezkoak eta autoikaskuntza modalitatekoak.

Euskarara hurbiltzen hasteko edo euskaraz sakontzekoak: oinariak hartzeko, askatzeko, euskara jasoan konfiantza hartzeko...

Maila guztietan, A1etik C2raino.

LAGUNTZAK
Matrikula erdia langabetu, ikasle, guraso eta jubilatuak.

Eusko Jaurlaritzaren bonuak eta gazteentzako laguntza bereziak.

MATRIKULA EPEA ZABALIK

PLAZO DE MATRICULACIÓN ABIERTO 2026-2027

Elgoibarren: Alta Agirre 3, 3. – 943 74 27 31
Deban: Ifar kalea 12 – 943 19 22 36

UDAL EUSKALTEGIAK
CURSOS DE EUSKARA EUSKARA BAZTERAK

HADE
HABEREN ONUR AGINTUA

NIRE USTEZ

Ez nahastu etsaiz

**GORANE AYESTA
MAIDAGAN**
DEBA BAILARAKO
KONTSEILU
SOZIALISTAKO KIDEA

Ceutako gertakariekin, beste behin, agerian gelditu da eskuin muturraren jardun oportunistak. Krisi migratorioaren aurrean, "inbasioa" pairatzen ari garen ideia baliatzen ari da, arrazismoan eta faxismoan oinarritutako diskurtsoa indartzeko, migratzaileak gizatasunik gabe aurkezteko eta arazo sozialen erantzule bihurtzeko. Ezin dugu ahaztu, ordea, miseria, pobrezia eta migrazio-fenomenoak sortzen

dituen sistemaren aliatu fidelak direla. Sozialdemokraziak, eskuin muturraren diskurtsotik bereizten bada ere, mugak, deportazioak eta migratzaileen kriminalizazioa mantentzen ditu bere migrazio-politiken bidez. Euskal Herrira etorruta, irailaren 2rako, PPK eta Voxek arrazakeria eta faxismoa hedatzeko mobilizazioak antolatu zituzten, eta haiei aurre egiteko mobilizazio antifaxistak ere izan ziren. Zupiriak, beste behin, antifaxistak kriminalizatu zituen, faxismoa normalizatuz eta haren aurka mobilizatzen garenak bizikidetzaren etsai

gisa aurkeztuz. Honek haserrea, mina eta kezka eragiten dizkit: nola liteke Ceutako tragedia humanitarioa interes politikoen arabera baliatzea, jarrera arrazista eta faxistei lekua ematea eta, gainera, haien aurka mobilizatzen garenok kriminalizatzea? Ez gara etsaiz nahastuko. Faxismoa indartu eta antifaxismoa kriminalizatzen dutenen aurrean ez dugu atzera egingo. Mobilizazioa eta antolakuntza dira gure tresnak, eta langile-klasearen batasuna erdigunean jartzeko baliatuko ditugu, inolako bereizketarik gabe eta gutxien dutenen alde borrokatuz.

KLIK

Egun argi eta luzeak, azkenetan

JOSE RAMON CABRERA
ARGAZKILARIA



Irudi goibel samarra dirudi, baina horixe da errealitatea. Abuztua eta jaiak amaitu berri ditugu, eta laster dendetan turroia saltzen hasiko dira. Gehiegizkoa irudituko zaizu, agian, baina ez da denbora asko pasako Morkaiko berriz ere horrela ikusi arte; elur-geruza fin batez estalita. Ohartzerako, beste urte bat igaroko da. Gozatu!



SEMAFOROA

Mintxetako belarra luzeegi dago

"Iritsi da uda denboraldiaren amaiera, eta badakit dagoeneko ez dutela Mintxetako igerilekuetako belarra moztuko, baina datorren urterako kontuan hartu dezaten, esan nahi dut aurten ez dutela batere zaindu igerilekuko belarra. Hasieran, berdegunea gogorra eta lehorra zegoen, eta, denboraldiak aurrera egin ahala, belarra luze-luze egon da. Espero dugu datorren urtean ez errepikatzea aurtengoa. Bide batez, jendeari esan nahi nioke zakarrak jaso egin behar direla, igerilekua ixten dutenean zaborra zelaian botata lagatzen baitute askok".

Kendu aurretik, ipini

"Errezabalgo lursaila egonkortzeko lanen ondorioz, auzoko aparkalekuak kendu zituzten uztailan, eta orain arte Herri Eskola aparkaleku gisa erabili dugu auzotarrok. Irail hasierarako ziren lanak bukatzekoak, baina ez dira garaiz iritsi. Herri Eskola itxi ziguten domekan, baina oraindik kaleko aparkalekuak ez zeuden erabilgarri. Uztailan ere gauza bera gertatu zen. Kalea itxi ziguten, Herri Eskola zabandu aurretik. Ez ziren egun asko izan orduan, eta orain ere ez, baina, tira, hurrengorako eskertuko genuke aparkalekuak kendu aurretik ordezkioak ipintzea, auzoan aparkatzea oso zaila da eta". Beste herritar batek Udala txalotu nahi du: "Udalari eskerrak eman nahi dizkiot Herri Eskola aparkaleku gisa erabiltzeko eman digun aukeragatik. Bide batez, eskatu nahi nioke aztertzeko Herri Eskolaren zati bat bada ere aparkaleku modura erabiltzeko aukera hori sarriago eskaintzea. Patio osoa ezin bada ere, zati bat. Urazandiko aparkaleku arazoa izugarri arinduko litzateke".

San Rokeko Jai Batzordeari eskaera

Herritar batek iradokizun hau egin nahi die San Roke auzoko Jai Batzordeko kideei: "San Roke jaietako antolatzaileei eskatuko nieke errifaren zozketaren saria jasotzeko epea irailaren erdialdera arte atzeratzeko. Azken urteotan San Rokeko jaiak uztailaren azkenengo egunetan ospatzen dira eta errifaren zozketako saria jasotzeko epe-muga 30 egunera izaten da; hau da, abuztu amaieran. Data horietan jende asko oporretan egoten da eta ez du epe barruan jakiten saritutako zenbakia zein den. Eskerrik asko".

Lau film, lau begirada, Iñaki Agirre zinema-zikloan

Irailaren 17tik 28ra bitartean emango dituzte filmak, Herriko Antzokian

Leire Urkidi ELGOIBAR
Donostia Zinemaldiarekin bat eginez iritsiko da Iñaki Agirre zinema-zikloaren urteroko hitzordua Elgoibarrera. Ongarri Zineklubak eta Elgoibarko Udalak antolatuta, lau film emango dituzte irailaren 17tik 28ra, Herriko Antzokian: *Palestina 36*, *Familia de alquiler*, *Un poeta* eta *Yo no moriré de amor*.
Aurreko edizioetan bezala, zinema komertzialetik harago begiratzeko aukera eskainiko du zikloak; film batzuk jato-

rrizko bertsioan, azpittituluekin, eta beste batzuk gaztelaniaz ikusteko aukera izango da. Gaur egungo zinemagintzaren hainbat joera eta ahots bilduko ditu aurtan Iñaki Agirre zikloak. Annemarie Jacir zuzendari palestinarren *Palestina 36* filmak 1936an Palestinan izandako matxinada arabiarra du ardatz. *Familia de alquiler* japoniarrak, berriz, gizartearen eta harreman pertsonalen inguruko begirada berezia eskaintzen du. Iaz Donostia Zi-



Iñaki Agirre, Herriko Antzokian. ASIER ORBEA

nemaldian ikusgai izan zen *Un poeta* ere izango da zikloan. Simon Mesa Sotok zuzendutako filma Kolonbiako zinemaren azken urteetako lan sarituenetako bat da. Aurtengo edizioa Marta Matutek zuzendutako *Yo no moriré de amor* filmak itxiko du. Zuzendariaren lehen

film luzea da eta Malagako Zinemaldiko sari nagusia eskuratu zuen. Aurtan, Donostia Zinemaldiko Made In Spain sailean ere izango da ikusgai. Zinemagile berrien lan eta begiradei arreta eskaintzea da, hain zuzen ere, Ongarriren beste ezaugarrietako bat.

Xabier Badiola eta Gailu izango dira Sotoko Hotsak jaialdiko gonbidatuak

Gaur zortzi, irailaren 18an, emango dute kontzertua, Aita Agirre kulturguneko arkupean

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR
Sototik arkupea izenburupean dator aurtan Sinuöseren Sotoko Hotsak musika jaialdia. Kultur Etxeko sotoa du izan du urteetan elkartek bilgune, baina, merkatu plazako lanen ondorioz, kontzertuak Aita Agirreko arkupean izango dira aurtan ere, iaz bezala.
Bi izango dira aurtengo artista gonbidatuak:
Xabier Badiola bakarlari eibartarrak emango dio jaiari hasiera, 19:00etan. Rock psikodeliko eta progresiboko hainbat

taldetan aritu ondoren, bakarka dihardu azken urteotan, eta bakarkako bigarren lana argitaratu du berriki: *Leihu ondoan xori bat*. Gitarra eta ahotsa dira nagusi haren jardunean, eta, bereziki, folk estiloko musika egiten du.
Bakarlariaren ostean, Gailu musika taldeak hartuko du lekukoa oholtzan, eta oso besotelako doinuak aurkeztuko ditu. Hip-hop, punka, elektronika eta rocka nahasten dituen Andoaingo musika taldea da. Luis Andre bideogileak



Badiola, gitarraarekin. GAZTELUPEKO HOTSAK

eta Mikel Abrego musikariak sortu zuten taldea, 1997an. Abiapuntua urte hartan trafikoa kudeatzeko Bilbon ezarritako kamera-sarea izan zen. Kamerek hartutako irudiekin 40 minutuko bideoa grabatu

zuen Andrek, kontrolaren eta zaintzaren gaineko hausnarketa egiteko, eta Abregok musika jarri zion. Horren emaitza *Kutxa beltza* diskoa izan zen. 2021ean proiektua berpiztu zuten.

Txankakuaren txartelarekin erosteak saria izango du

Herriko merkataritza sustatzeko beste kanpaina bat jarri du martxan Txankakuak, eta, horri esker, elkarteko txartelarekin egiten den lehenengo erosketan motxila bat jasoko dute opari herritarrek, irailaren 30era arte. Horren harira, txartel-titular bakoitzeko motxila bat eskuratu daiteke, eta kanpainak izakinak agortu arte iraungo du.
Horrez gain, urte amaierara arte 10 euroko sariak zozkatuko dituzte, ausaz, txartela erabiltzen duten herritarren artean. Hain zuzen, 10 euroko 300 sari banatuko dituzte.
Txartela ateratzea doakoa da, eta ez da beharrezkoa bankuz aldatzea. Gainera, erosketak hiru hilabeteko epean ordaintzeko aukera ematen du, inolako interesik gabe.
Hori guztiori Elgoibarko Udalen, Eusko Jaurlaritzaren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Nafarroako Rural Kutzaren laguntzarekin antolatu du Txankakuak.

'Anarene' argazki erakusketa zabalduko dute gaur



Erakusketako irudi bat. MIKEL BASTIDA

Mikel Bastida argazkilariak (Bilbo, 1982) betidanik izan ditu gustuko historia eta zinema, eta, hain zuzen, biak izan ditu inspirazio-iturri.
Anarene lanak modu poetikoan aztertzen du kontakizun zinematografikoek Ameriketako Estatu Batuetako paisaien eta errealitate fisikoen eraikuntzan izan duten eragin sakona.
Ongarriren eskutik izango da erakusketa hori Elgoibarren, gaurtik irailaren 26ra arte –larunbata–. Astelehenetik zapa-tura egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era.

EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG GS6PB51FAB LABEA

479 €

- Autogarriketa pirolotikoa
- 71 litro
- Funtzio anitzekoa
- Zunda termikoa
- AirFRY funtzioa
- WIFI funtzioa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte


TERYXPUR®

LAGUNAK
colcheneria textil hogar

- 1. Stretch ehuna / 2. Polister zuntza
- 3. Soja natural ez-transgenikoaren biskoolastika
- 4. Poliesterra / 5. Ehungintza TB
- 6. Soja natural ez-transgenikoaren biskoolastika
- 7. Soja natural ez-transgenikoaren Terplus nukleoa
- 8. Platabanda / 9. Ehungintza TB / 10. Poliesterra
- 11. Polister zuntza / 12. 3d ehun iristagaila

Moldagarria, transpiragarria, termoaldakorra, ergonomikoa, presioaren aurkakoa, alergiaen aurkakoa eta akaroen aurkakoa

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com



Udako egun bateko irudia. UDALA

Egonkortze lanak amaituta, trafikoa lehengora itzuli da Urazandin

Hamasei metroko 58 pilote sartu dituzte Errezabalgo mendi hegala sendotzeko

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Uztailean hasi zituzten Errezabalgo mendi hegala egonkortzeko lanak, eta, horren ondorioz, Urazandiko trafikoa berregituratu egin behar izan zuten. Aste honetan bukatu dituzte lanak, eta auzoko aparkalekuen eta trafikoaren noranzkoa lehengora itzuli da. Egonkortze lanak egin dituzten errepide zatiko zorua hormigoizko akaberarekin lagako dute aldi batean, eta behin betiko asfaltatzea beste fase batean egingo dutela jakinarazi du Udalak.

58 pilote

Errezabal egoitza egiteko lanak hasi zituztenean, lur mugimendu eta pitzadurak sortu ziren Urazandi auzoan; errepidean zein etxeetan. Obrako ardura dunek lurra sendotu beharra

ikusi zuten, eta mendi magalari eusteko pilote-segidaz osatutako bi pantaila osagarri erakitzea erabaki zuten. Makina zulagailu berezi bat erabiltzeko egin dituzte lanok. Lurrean zuloa egin ostean, hormigoiz betetzen zuten, eta amaieran 40 bat zentimetroko diametroko altzairuzko armadura-kaiola bat sartu hormigoiz beteriko zuloetan. Guztira, era horretako 58 pilote sartu dituzte lurzoruan, hamasei bat metroko sakoneraraino. Pisu guztia geruza sakon eta gogorragoetara transmititzeko erabiltzen den zimentazio sakoneko teknika bat da piloteen hau.

Piloteak jarri aurretik, obra eremua lurrez bete zuten, ingurua sendotzeko. Egoitzako obrei berriro ekiteko, lur hori guztia berriro atera beharko dute.

Bertso Eskolan izena emateko epea zabaldu dute

A.A. ELGOIBAR

Elgoibarko Udalak ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzeko egitasmoa bideratzen du, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen gidaritzapean, eta Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin lankidetzan. Horren osagarri, Bertso Eskola jarri zuen martxan, eta dagoeneko zabaldu dute aurtengo ikasturterako izena emateko epea. LH4tik DBHra arteko umeek hartu dezakete parte. Taldeak osatuz gero, irailaren 28an izango da aurkezpen eguna, eta egun horretan adostuko dute guztien artean ikasturterako ordutegia. LHkoak

17:00etan bilduko dira, Aita Agirreko areto nagusian, eta DBHkoak, berriz, 15:30ean. Irakaslea Eneko Beretxinaga izango da. Bertsoarekin duen harremana transmisioarekin lotuta egon da, bereziki, bertso eskoletan, aisialdian eta hezkuntza arautuan. Besteak beste, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko batzordekide ere bada, eta hezkuntza arautuko irakasle.

Izena emateko epea irailaren 18an itxiko dute. Interesatuak Udaleko Euskara Sailera jo beharko dute: 943 74 43 66 edo euskara@elgoibar.eus. Ikasturtearen prezioa 50 euro da.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Jubilatuen Biltokian

Gipuzkoako odol emaileen zerbitzua gaur iritsiko da Elgoibarrera, arratsaldean. Ohi bezala, 16:30etik 20:30era bitartean egingo dituzte ateratzeak, Jubilatuen Biltokian.

Odol Emaileen Elkartek dei egin die herritarrei odola ematera joan daitezen; gazteei, bereziki. Izan ere, ohartarazi dute odola ematea bizitza ematea dela, eta garrantzitsua dela bankuak betetzea.

Hain zuzen ere, interesa dutenek txanda hartu beharko dute aurrez, odol ateratzea hobeto antolatu ahal izateko. 623 32 84 08 telefono-zenbakira dei egin daiteke, edo mezua bidali, Whatsapp bidez.

Martxan dira merkatu plaza eraisteko lanak



AINHOA ANDONEGI

Udako etenaren ostean, merkatu plaza botatzeko obra martxan da berriro ere. Moyua eraikuntza-entresak eskuratu zuen eraisketa lanok egiteko lizitazioa, 544.835 euroko aurrekontua aurkeztuta.

Eraisketa lau zapabost hilabeteen bukatzea aurreikusten dute. Inguruko bizilagunekin bilera egin zuen Udalak, obrari buruzko informazioa emateko, eta, han azpimarratu zuten, segurtasu-

nak izango du lehentasuna proiektu osoan: obra-eremua hesituta egongo da, sarbidea mugatua izango da eta oinezkoentzako pasabideak behar bezala seinalatuta egongo dira.

JOLASAKALERA

NOIZ: irailaren 11n eta 25ean

NON: Lekuederren

ORDUTEGIA: 16:30-18:30

**Euria eginez gero, elizako arkupeetan izango gara*

Antolatzailea:

Babesleak:

Laguntzaileak:



Talde argazkia atera zuten txapelketaren amaieran. ROBERTO SANCHEZ / SANLO

Ermuko Errotabarri eta Zumaiako Pulpo nagusi Gojko Vucinic txapelketan

Ermuko eta Zumaiako taldeak nabarmendu dira Gojko Vucinic txapelketan

Asier Orbea ELGOIBAR
Gojko Vucinic Elgoibar Hiria kadete mailako eskubaloi txapelketaren 8. ekitaldia hartu zuen asteburuan Elgoibarrek.

Sanlo kirol taldeak antolatzen duen txapelketan Gipuzkoa, Bizkai eta Nafarroatik etorri ziren hamar kirol taldetako ordezkariak aritu ziren lehian;

nesken zein mutilen hamasei talde guztira
Mutilen lehiari dagokionez, Zumaiako Pulpo kirol taldeko talde batek irabazi zuen txapel-

keta, hirugarren urtez jarraian. Aurtengo finalean Eibar Eskubaloi taldea izan zuten aurkari, eta zumaiarrak nagusitasunez gailendu ziren. Hamabi goleko errentarekin joan ziren atsedenaldi luzera -20-8-, eta bigarren zatian ez zuten pilotutako aldeari eusteko arazorik izan: 33-23 izan zen finaleko azken emaitza. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke lehian, Sanloko Urkunde taldeak eta Loiuko Urdanetak jokatu zuten elkarren aur-

ka, eta bizkaitarrentzat izan zen garaipena, 22-15eko emaitzarekin.

Errotabarri nagusi nesketan
Nesken arteko lehian, berriz, erakustaldia egin zuen Ermuko Errotabarri taldeak. Finalean ez zioten aukerarik eman Iruñeko Anaitasuna taldeari, eta bizkaitarrak 31-10 gailendu ziren. Hirugarren posturako lehian, Pulpok 24-18 irabazi zion Sanloko Amaro Eraikuntzak taldeari.

Mendi bizikleta martxa zapatuan eta Lizagasar erronka domekan

Mendiaz gozatzeko asteburu bete-betea prestatu du Morkaikok

Asier Orbea ELGOIBAR
Hasteko, zapatarako Elgoibarko MTB martxaren estreinako edizioa antolatu du Morkaikoren BTT sailak. Azaldu dutenez, Elgoibar inguruetan mendi bizikletaz gozatzeko aukera eskaini nahi diete adin eta maila askotariko lagunei. Ez da lasterketa izango, martxa baizik. Beraz, ez dituzte denborak eta sailkapenak hartuko, baina partaideentzako sariak egongo dira. Proba amaieran zozkatuko dituzte sariak guztien artean. Hiru ibilbide egongo dira aukeran: martxa txikia -7 kilometro-, ibilbide motza -23 kilometro eta 900 metroko desnibel positiboa- eta luzea -30,5 kilometro eta 1.400 metroko desnibela-. Martxa motzeko eta luzeko partaideak 09:00etan irtingo dira, Mintxetatik, eta

10:00etan, martxa txikikoak. Probaren amaieran parrillada egongo da partaide guztientzat, 12:00etatik 14:00etara.

Lizagasar erronka, guztientzat irekia
Domekarako, berriz, Lizagasar erronkaren laugarren ekitaldia antolatu du CATT Morkaikok. Aurten, gainera, parte hartu nahi duen orori aukera eman go diote antolatzaileek. Ehun dortsaletan jarri dute muga. Halere, online bakarrik egin daiteke izen ematea, eta gaur da azken eguna. Federatua egotea beharrezkoa da. Erronka Txikian parte hartzeko, berriz, ez da mugarik egongo. 12 urtera arteko umeek har dezakete parte. Ez da proba lehiakorra izango eta partaide guztientzat egongo da oparia.



Korrikalariak, Lizagasarko sagastietan barrera, iaz. AINHOA ANDONEGI

11:00etan hasiko da lasterketa. Lizagasarren 2.300 sagasti dau- de, 60 sagasti sailetan banatu- ta, 30 aldapan gora eta beste 30 aldapan behera, eta horietan arituko dira antxintxika par- te-hartzaileak, zortzi kilome- troko ibilbidean. Desnibel po- sitiboa 750 bat metrokoa izan- go da eta %35eko maldak gain- ditu beharko dituzte ibilbide gorabeheratsuan.

Antolatzaileek jakinarazi du- tenez, kirol proba ikustez gai- nera, Lizagasar eta bere sagas- tiak bertatik bertara ezagutze- ko aukera izango dute ikusleek. "Sagartokixan barrena aska- tenez ibili ahal izango dute eta nahi duten lekua aukeratu erronkaz gozatzeko eta partai- deak animatzeko". Musika ere izango du erronkak, Pires DJak giro- tuko baitu kirol-proba.

Berritasunekin dator Eskola Kirola

Ikasturte berrirako izena ema- teko bigarren epea zabaldu du Elgoibarko Eskola Kirolak. Irailaren 14ra bitartean eman daiteke izena; hain zuzen, ikas- turtea hasiko duten egunera arte. Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako 6 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartu dezakete, eta orain arte 254 haurrek eman dute izena. Aur- tenco ikasturteak aldaketa esanguratsuak ekarriko ditu egutegian eta programazioan. Berritasun nagusietako bat da ikasturtearen hasiera urritik irailera aurreratu dutela.

Horrez gainera, programazioak talde-kirolen presentzia indar- tuko du, Elgoibarren sustrai- tuta dauden modalitateei ga- rrantzi handiagoa emanez, eta herrian ohikoak diren beste kirol batzuei ere egingo diete lekua, ikasleen parte-hartzea eta aniztasuna sustatzeko. Jo- lasak eta kirol alternatiboak ere programaren parte izango dira, esperientzia "osasungarri eta hezigarriak" eskaintzeko.

Hamar ume eskolatu dira 2 urteko gelan, eta 4 eta 5 urtekoak gela baten elkartu dituzte

136 ikaslek hasi dute ikasturtea; 2022-2023ko ikasturtean baino 68 gutxiagok

Ainara Argoitia MENDARO

Une jakin batzuetan gogaikarri gerta daitekeen arren, gauza ederra da haurren txilimala herri baten izaterako. Apalduz doa hori ere, baina. Bi datu, Eustatena bata eta Hezkuntza Sailarena bestea: 2026ko lehen hiruhilekoan, 3.245 haur jaio ziren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, aurreko urteko aldi berean baino %0,9 gutxiago, eta, Gipuzkoara etorrita, jaiotza-tasa %2,3 apaldu zen. Eta bigarrena: 280.386 ikasle matrikulatu dira aurten EAEn Haur Hezkuntzatik hasi eta batxilergora, joan den ikasturtean baino %4,2 gutxiago. Joera bat erakusten dute datuok, gainera, eta betetzen da joera hori Mendaron ere. Joan den ostiralean hasi zuten ikasturtea haurreskolan, eta astelehenean, eskolan, Lehen Hezkuntzan. Irailean sei ume hasi dira haurreskolan, eta 136 ume hasi dute ikasturtea eskolan, duela lau ikasturte baino 68 gutxiagok –204 izan ziren orduan–.

Bizkar-zorroak bete eta itzuli dira eskolara haurrak. Pozik batzuk, oporraldian nahi beste ikusterik izan ez dituz-



Umeak, ikastolara bidean, astelehenean. AINARA ARGOITIA

ten lagunak ikusteko gogoz, eta nagi handiagoarekin beste batzuk. Hamar ume, baina, estreinako aldiz igo zuten eskolako arrapala astelehenean. Izan ere, hamar dira aurten Haur Hezkuntza hasi dutenak –hamaika izan ziren iaz 2 urteko gelan–. Bestalde, aurten, maila bakarrean izango dira bi linea: LH5en. Era berean, HH4 eta HH5 geletako haurrak gela bakar baten elkartu dituzte estreinako, 4 urtekoak zazpi zirelako eta 5 urtekoak, hamabi.

Haurreskolan, sei ume

Haurreskolan, bestalde, joan den barikuan hasi zuten ikasturtea. Guztira 21 plaza daude: zortzi 0-1 urte artekoetan eta hamahiru 1-2 urte artekoetan. Bada, irailean sei ume hasi dira. Era berean, urrirako beste bi ume matrikulatzeko eskaera jasoa zutela zehaztu zuten, eta litekeena da barikutik atzora besteren bat gehitu izana. Izan ere, plazak libre dauden bitartean, hileroko egoten da haurreskolan izena emateko aukera, hileko lehen hamar egunetan.

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa antolatu du Udalak

Zoru pelbikoak funtsezko egin-kizuna betetzen du oinarrizko funtzioetan. Esate baterako, esfinterraren kontrola hobetu eta gernu-ihesak saihesten ditu, maskuria, sabela eta uteroa bere tokian mantentzen ditu, eta sexu harremanak hobetzen ditu. Hala ere, emakumeen kasuan, erditzeek, hormonei lotutako gora-beherek eta egunerokoari lotu-

tako beste egoera askok ahuldu egiten dute zoru pelbikoa, eta disfuntzio horiek saihesteko eta tratatzeko ikastaroa antolatu du Mendaroko Udalak.

Hamar saioko ikastaroa izango da, eta Saioa Baena fisioterapeutak emango du. Irailaren 11n zabalduko dute izena emateko epea, eta irailaren 20a izango da azken eguna. Saio guztiak astelehen eta martitzenetan izango dira, 10:15etik 11:45era, Azpilgoetako Kultur Etxean. Udalean eman behar da izena, 10 euroan.

Zabalik dago Gym Berdea ekimenean izena emateko epea

Zabaldu dute Gym Berdea ekimenean izena emateko epea. Osasunaren hezkuntzan espezializatutako William Bird medikuak Erresuma Batuan sortutako Green Gym ekimenean du sorburua proiektuak, eta Larrabetzun ikusita ekarri zuen Udalak herrira, duela hiru urte. 16 urtez gorakoentzako proiektua da, Eusko Jaurlaritzak ba-

bestua, eta bi helburu nagusi ditu: ariketa fisikoa eginez osasuna eta ongizatea hobetzea eta herrian sozializatzeko aukerak sortzea eta komunitatea indartzea. Gym Berdekoak martitzenero elkartzen dira lanerako, 16:15etik 19:00ak arte, eta aurten, irailaren 15ean hasiko dira lanean. Lehenengo bi urteetan dozena bat lagun inguruko taldea aritu da herriko berdeguneak zaintzen, eta Keko Alonso biologoa izan dute gidari bi urteotan. Informazio gehiagorako: 943 03 32 82.

Herrian bertan euskara ikasteko aukera erraztu nahi du Udalak

Herritik bertatik irten beharrik gabe euskara ikasteko aukera eskaini nahi die aurten ere Udalak herritarrei, eta izena ematera dei egin die. Interesatuak Kultura Sailean eman behar dute izena, kultura@mendaro.eus posta elektronikora idatzita nahiz 943 03 32 82 telefono zenbakira deituta. Izena emateko azken eguna: irailaren 19a.

Bigarren eskuko azoka antolatu dute biharko, irailak 12

Uda amaitzeaz da, eta atzera lagatako arropari beste aukera bat emateko, bigarren eskuko azoka antolatu dute Mendaron biharko, *Astindu ganbara* izenburupean. Goñati frontoian egingo dute azoka, 10:00etatik 14:30era. Antolatzaileek aurreratu dute hogei bat postu izan-go direla eta denetarik aurkitu ahal izango dela haietan.

Hiru kontzertu iragarri ditu Gazte Asanbladak irailaren 18rako

Ainara Argoitia

Irailaren hirugarren zapatua Gararock jaialdiak hartua izan du azkeneko urteotan Mendaron, baina aurten ez zela halakorik izango aurreratu zuten antolatzaileek; ez, behintzat, orain arte ohituak geunden moldean. Nolanahi ere, musika izan, izango da garai horretan Mendaron; ez zapatuan, baina bai barikuan, irailaren 18an. Izan ere, hiru kontzertu lotu ditu Gazte Asanbladak egun horretarako, Ateri, Ezta Ilen eta Grapa taldeenak. Gaztetxean izango dira kontzertuak, 21:30ean hasita, nahiz atea 20:30ean zabalduko dutela aurreratu duten antolatzaileek.

Hard-rock doinuak nagusi

Ateri: Aretxabaletako, Bergarako, Arrasateko eta Leintz Gatzagako musikariek osatzen dute Ateri. 2024an sortu zuten taldea, eta hard-rocka eta post-punka egiten dute. Iaz argitaratu zuten beren lehen lana, sei kantukoa: *Ilun eta argi*. Iluntasun gordinetik argitasun hauskorrerainoko bidaia bezala definitu izan dute taldekideek diskoa.

Ezta Ilen: 2022. urtean Zaldibarren sortutako hirukotea da. Ander San Martin gitarra-joleak, Sergio Devesa bateria-joleak eta Aritz Aranburu *Tarran* baxu-jole eta abeslariak osatzen dute taldea, hardcore, punk eta rock-and-roll taldeetan aritutakoek.



Grapa taldekoak. SAREA

Punk ilun eta post punk musika sortzen dute.

Grapa: 2025ean sortu zen taldea Bergaran hiru bergararrek eta zumaiar batek, eta 90eko hamarkadako punk klasikoa jotzen dute.



Rosa Marin

Balleta

Haurak - Gazteak - Helduak

Ballet klasikoa
eta dantza modernoaren koreografiak.

Deitu! 667 51 91 53

"Talde nagusira iristea lortuta, minutuak aprobetxatu eta nire gaitasunak erakutsi nahi ditut"

ERIC PEREZ ALBARRAN FUTBOLARIA

Bi urtez lagata jokatu ostean, 25 urteko aurrelari ermuarra lehen taldera igotzeko apustua egin du SD Eibarrek; abuztuan izan da debuta, lpuan

Ander Gomez

Egungo ume gehienek *youtuber* izan nahi dute; Eric Perez (Ermua, 2001), ordea, futbolari izatearekin amesten zuen azken belaualdikoa da. Bada, aurren, profesional mailan jokatzeko ametsa bete du, Eibarren.

Zein da futbolari lotuta duzun lehen oroitzapena?

Betidanik egon naiz baloiarekin, Ermuko plazan edo aitarekin Santa Anako zelaian. Eskolatik ateratzean entrenatzera joaten nintzen, eta bukatutakoan plaza- ra bueltatzen nintzen, futboleko jarraitza. Forum, Decathlon eta halako dendetan sartzen ginene- tan, baloi bat eskuan ateratzen nintzen.

Herriko taldeetan hasi zinen, ezta?

Eskolabarrin, bosteko futbol modalitatean. Gero, Anaitasunara pasa nintzen, eta, azkenik, Ermua CDra. Kadeteko lehen urtean Athletic Cluben programan sartu ginen taldekide batzuk: bi egun herrian entrenatzen ginen eta beste bi Lezaman, taldearen parte izan barik.

Baina laster jo zintuen begiz Eibarrek.

Ikuskatzaileak etortzen ziren partidetara. Mikel Gonzalez zen orduko kirol-zuzendaria, orain Athleticen dagoena. Gurasoe- kin egin zuten berba, bilera bat egin genuen eta sinatu egin nuen.

Armagina zinen aurretik?

Lauzpabost lagun joaten ginen beti lpuara partidak ikustera, eta uste dut bi igoerak bizi izan genituela. Sinatzerakoan Lehen Mailan zegoen, eta gogoan dut nire artean pentsatzea: "*Primera-ko* talde baten harrobian nago..." sinetsi ezinik.

Zer moduz aldaketa?

Ez oso handia. Ermua oso ondo zebilen, liga bat azpitik soilik. Aldaketa handiena instalazioetan eta pertsonalean igarri nuen, denak *profesionalago* zirudien.

Gerora, bigarren taldea Segunda RFEF Mailara igotzen lagundu zenuen.

Kadeteetan, gazte mailan eta Eibar C-n ibili ostean, B taldera ailegatu nintzen. Lehen urtean, *play-off*-etarako sailkatu eta galdu egin genuen. Klubak urte asko zermatzen igoera nahian, eta kolpe gogorra izan zen. Hurrengoan, ordea, ez genuen aukera galdu. Orduan, lehen taldearen ligako azken partidak eta 2023-2024ko denboraldirako igoerako *play-off*-a jokatzeko deitu ninduten, eta hiru urtez berri- tu zidaten kontratua. Denboraldiaurrea ere haiekin egin nuen, lagata jokatzeko hasi aurretik.

Nola izan zen talde nagusiarekin izan zenuen hasierako hartu- emana?

Askotan, talde- z igotzen zaituzte- nean, apal edo kikilduta egoten zara. Ni ausart eta konfiantzare- kin hasi nintzen, eta kristoren denboraldiaurrea egin nuen. Prentsan ere islatu zen hori: *Mar- ca* eta *AS* egunkarietan agertu nintzen. Ondoren etorri zen Alcorcon, Amorebieta eta Barakaldo-ko bi urteko etapa, RFEF lehen mailan.

Ze irakaspen atera duzu bakoitzetik?

Alcorconen minutu gutxi jokatu nituen, etxetik kanpo nengoen,

"lpuan, harmailetan dauden 4.000 pertsonatik 2.000 bat ezagutzen ditut; sekulakoa da hori"

"Konfiantza handia dut; beti ikusi dut neure burua 2. Mailan eta talde nagusian jokatzeko gai"

bakarrik... baina dena ematen nuen, gero jokatu- ko ez nuela jakin arren. Orain, atzera begiratuta, gehien ikasi dudana esperientzia izan dela uste dut. Gero, urtarri- leko merkatuan, Amorebietara pasa nintzen; eta gogotsu hartu nuen, etxetik gertu zegoelako eta konfiantza jarri zutelako nigan. Momenturik gozoenak –tarte- an izandako lesio bat kenduta–, ordea, Barakaldon bizi izan ditut. Alda- gela oso *sanoa* zen, taldea ere ona... eta bilatzen zuten joko- es- tiloa bat zetorren nirearekin: ol- darkorra izatea eskatzen ziguten, baloia hartu eta erasora jotzea.

Zelan jaso zenuen Eibarko talde nagusiaren deia?

Oso pozik. Azkenean, ermuarra izanda, etxean bizi naiteke, lagu- nekin egon, bikotekidearekin, familiarekin... eta aurrerapauso handia da Bigarren Mailan jokatzea. Kontratua bukatze- ar nuen eta etxetik kanpoko taldeak begi- ratzen hasia nintzen... Baina klu- bak konfiantza eman zidan, Ba- rakaldon egindako lanagatik zo- riondu eta nire jokatzeko modua nabarmendu: "Desberdina da, behar dugun zerbait", esan zidaten.

Markel Arana loiuarrarekin egin duzu talde nagusirako jauzia; biak Barakaldotik etorriak eta Eibarko harrobikoak.

Eibar C-n eta B-n jokatu genuen, ondoren Barakaldon, eta aurren seigarren urtea egingo dugu el- karrekin. Oso harreman ona daukagu, eta justu oportet- an batera geundela jaso genuen deia. Kasu arraroa da; normalean, taldeetan urtero 12-13 jokalaria ateratzen dira, edo bota egiten dituzte... eta are arraroagoa da harrobietatik lehen talderako bidea batera egin izana.

19. zenbakia jantziko duzu. Badu esanahi berezirik?

Liga hasi baino aste- bete lehenago jakin nuen jantziko nuela. Nik 17,



Eric Perez, lpuara futbol-zelaian. SD EIBAR

19 eta 21a neuzkan buruan. Har- tuta zeuden, baina justu 19a libre geratu zen. Noizbait 10a edo 11 jan- ztea gustatuko litzaidake, bai- na *handi* geratzen zaizkit oraindik.

Abuztuan egin zenuen debuta, lpuan bertan.

Ederra izan zen. Beti diot ez dela berdina kanpoko pertsona baten- zat edo niretzat. Eibarko bazkide gehienak eibartarrak eta ermua- rrak dira. Familiakoez eta lagunez gain, bertako ezagunak, entrena- tu ditudan umeak, Eskolabarrin irakasle nengoela izandako ikas- leak... ikusten ditut harmailetan. Agian, 4.000 pertsonatik 2.000 ezagutzen ditut, eta sekulako bul- tzada ematen dit horrek.

Bigarren zatian sartu zinen, eta ho- geita hamar minututik gora jokatu zenituen. Zelan sentitu zinen?

Sinetsi ezinda. Aulkian nengoela, hiru aldiz deitu zidaten, baina zarata artean ez nuen ondo en-

tzuten, eta pentsatu nuen: "Ez naiz ni izango". Ilusionagarria izan zen, nahiz eta egoera zaila izan. Galtzen gindoazen eta aur- karia defentsan sendo zebilen. Askoz gehiago eman dezakedan arren, ondo sentitu nintzen eta ez nintzen urduri jarri.

Zeintzuk dira zure helburuak denbo- raldi honetan?

Taldeari nire jokoa eta zertarako gai naizen erakustea: driblinak, erdiraketak, gol-aukerak sortzea... Egoera kontuan hartuta, ematen dizkidaten minutu guztiak apro- betxatu nahi ditut, taldeari ahalik eta gehien laguntzeko.

Eta aurrera begira?

Garrantzitsua da urte ona egitea, kontratua luzatzeko. Beti izan dut konfiantza nigan, eta beti ikusi dut neure burua Bigarren Mailan eta lehen taldean jokatzeko gai. Hainbeste urteren ostean aukera izanik, ez dut alferrik galdu nahi.



Martitzenean bandera-igoera egin zuten udaletxean, Extremadurako Aste Kulturalari hasiera ofiziala emateko. A. GOMEZ

Extremadurako gastronomiaz, kantuz, jolasez eta dantza tradizionalaz beteriko astea

Asteburuko kontzertuek, txapelketak eta bazkariak borobilduko dute 35. Aste Kulturala

Ander Gomez

Martitzenean, irailak 8, ospatu zen Extremaduraren Eguna. Urtero bezala, Udalak harrera egin zien bertako kultur etxea osatzen duten bazkideei. Bilkura-aretoa bete zuten, eta alkateak euren sustraiekiko loturari eustera eta herritarrekin beren kultura partekatzen jarraitzera animatu zituen: "Gaur igoko dugun banderak ez dio lurralde bati soilik egiten erreferentzia; zuen sustraia eta zuen historia dira, behin etorkizun hobe baten bila Ermura ailegatu ziren pertsonak dira, eta urte hauetan guztietan eraiki duzuen guztia- ren erakusle da".

Veronica Pavo presidenteak, berriz, zentroaren sorrera bul- tzatu zutenen lana goraipatu zuen, eta gaur egun lortu den guztia ikustea gustatuko litzaio- keela adierazi zuen: "Askok ez

zekiten ez irakurtzen ez idazten, baina ausardia eta indarra zu- ten, eta handik ekarritako guz- tia elkarrekin zein herri osoa- rekin partekatzeko gogoia zuten". Bandera-igoera zentroaren bi sortzaileri eskaini zien: San- tiago Pavori, aitari; eta Fer- nando Gonzalez osabari, zen- troko lehen presidente izanda- koari. Vanessa Gonzalez lehen- gusinarekin batera igo zuen bandera, elizpean bildutako herritarren txalo eta emozio artean. Ondoren, Kultur Etxean batu ziren guztiak, agintariekin batera ohore-ardoa eta moka- dutxoa hartzeko.

Musika saioak, karta-txapelketa eta bazkaria asteburuan

Astean zehar kultur egitarau zabala izan dute: Umeen Egunean Lekim pailazoak eskainitako ikuskizuna, toka eta igel jokoak,

jaki tradizionalen lehiaketa... Ekintza-sorta potoloena, ordea, asteburu honetan izango da.

Gaur, barikua, San Pelayoko ohiko pintxo-poteak geldione berezia izango du Extremadu- rako Kultur Etxean; bazkideek prestatutako ogi-mamiak, gaz- patxoa eta txitxi-burruntzia dastatzeko aukera egongo da.

Zapatu eguerdian, bertako Flor de Tomillo abesbatzak girotuta- ko meza izango dute zentroan, eta zendutako bazkideei lore-es- kaintza egingo diete. 17:00etan, kuartrola txapelketa hasiko da, eta, ondoren, arratsalde-pasa izango dute, Iker B-ren DJ saioa- rekin, 23:00ak arte.

Domekan, 12:30ean, Jose Cobos kantautoreak *Extremadurari omenaldia* emanaldia egingo du zentroan; eta ostean, bazkaria egingo dute bazkideek eta gon- bidatuek.

Instrumentuak ikasteko tailerrak eta 'jam session'-a Folkez Blai jaialdian

A.G.

Folkez Blairen oinarria gaurtik domekara bitartean jokatu- ko den musika taldeen arteko txap- elketa den arren, jaialdia lehi- az haratago doala gogorarazi dute antolatzaileek. Alde batetik, mundu osoko instrumentu tra- dizionalak ikasteko tailerrak prestatu dituzte. Momentuz, txirula irlandarra, whistlea, bodhrana, bouzuki-gitarra eta pandero ikastaroak lotu dituzte; guztiak zapatuetan, goizez eta arratsalde. Hala ere, biolin eta txelo ikastaroak ere lotzen ari dira. Interesa dutenek 696 30 72 39 (Luis) Whatsapp zenbakira idatz dezakete.

Bestetik, tailerretako ikasleek, lehiaketako partaideek eta ani- matzen diren herritarrek Tra- bakua aldean egiten diren *jam session* pribatuetan parte har- tzeko aukera dute. Bariku eta zapatu gauetan egitea aurreiku- si dute, eta izena eman nahi dutenek plazako txosnara jo beharko dute.

Azken orduko aldaketak lehiaketan

Galiziako Do Rives eta D'Supe- to taldeek ezin izango dute jo, eta haien ordeztaritu dira Musker taldea eta Valentziatik etorriko den Anima taldea. Ho- riez gain, iazko irabazlearen gonbita ere bertan behera gera- tu da, eta, Madrilgo Xara tal- dearen ordeztaritu orain bi urte Ver- tigo Rocken aritutako Moonshi- ne Wagon igoko da plazako kioskoran.



Ikusleak dantzan, iazko jaialdian. A.G.

'Mendiko ahotsak': motibazio istorioak, Hiru Txikiak-en aurretik

Hiru Txikiak Traileko antola- tzaileak lasterketa egunaz ha- ragoko egitaraua lantzen ari dira. Hasteko, norbere buruaren mugak gainditzeari buruzko bi istorio batuko dituen hitzaldi berezia iragarri dute datorren egunerako, *Mendiko ahotsak* izenburupean.

Munduko trail lasterketa go- gorrenen atzean dagoen presta-

keta ezagutzeko aukera egongo da bi lanen bitartez: ultratrai- letan mito bihurtu den Silvia Triguerosen *TOR* dokumentala, batetik; eta lesio larri baten ondorioz ia ibiltzeko gaitasuna galdu zuen Fernando Fernan- dezen *Corriendo con lobos* libu- rua, bestetik.

Urtero trailean esatari lanak egiten dituen Pedro Guerrero *Chito* arduratuko da solasaldia gidatzeaz. Lobiano Kulturgunean izango da, 19:00etan, eta sarre- ra librea izango da, edukiera bete arte.

Barrena
GEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

ALBOKA
MUSIKA ESKOLA
943 17 12 98
albokamusikaeskola@hotmail.com

Abesbatza	Gitarra	Perkusioa
Banda	Gitarra elektrikoa	Pianoa
Biolina	Gitarra baxua	Saxofoi
Biolontxeloa	Musika Hizkuntza	Trikitixa
Flauta	Klarineta	Tronboia
	Panderoa	Tronpet

Torrealdia
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA
ERMUA

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

"Nire anaiak gauzak ondo egin zituela erakusten du larunbatekoak"

MARIO MELLADO SANCHEZ JAVI 'ENANO'-REN ANAIA

Hamabost rock taldek eta ehunka herritarrek bat egin zuten larunbatean Orbe Kardinala plazan, Javi 'Enano'-ren oroimenez

Garazi Mendieta

Mario Mellado, Eskarmiento taldeko kide izateaz gain, Javi *Enano*-ren anaia eta omenaldia-
ren antolatzaileetako bat da. Larunbatean, Orbe Kardinala plaza hamabost rock talderen musikaz gozatzeko eta Javi gogoratzeko elkartu ziren herritarrez bete zen. Egunaren antolakuntzak eta jaialdiak utzitakoak emozioz gogoratzen ditu.

Nola eta noiz sortu zen Javiren omenez rock jaialdi bat antolatze-ko ideia?

Nik neuk ez nuen horrelakorik egiteko asmorik. Zerbait intimoagoa egin nahi nuen: hiru talde jotzen, leku txiki batean. Harekin jo zuten taldeei soilik deitu nahi nien hasiera batean, eta haiekin omenaldi txikiago bat egin. Baina antolakuntzan ikusi zuten Udalaren dirulaguntza bat lor genezakeela, eta horrela egitea proposatu zuten.

Nolakoa izan da antolakuntza proiektua?

Ekainean hasi ginen dena antolatzen. Nire anaia eta biok Ermuko eta Eibarko lokaletan ibili izan gara beti. Horregatik, hango zein hemengo lokaletan zebilen jendea kontuan hartu nahi izan genuen. Bi zerrenda egin genituen, herri bakoitzeko bat, nahi zuenak izena eman zezan. Ez genuen espero hainbeste talde aterako zirenik, eta, ondorioz, talde bakoitzaren errepertorioa hiru abestira mugatu behar izan genuen.

Zergatik erabaki zenuten rock jaialdi bat egitea zela Javi omentzeko modurik egokiena?

Nire anaia musika zen. Nik instrumentuak jotzen baditut eta musika hainbeste gustatzen bazait, neurri handi batean hark transmititu didalako da, txikitatik. Ezin genuen beste modu batean egin. Bizitza osoa pasatu



Mario Mellado, omenaldi-kontzertuan. ALICIA MELLADO

dugu musika jotzen; Eskarmiento taldea duela 30 urte baino gehiago sortu genuen batera. Beti egon gara musikari lotuta, eta oraindik ere hala jarraitzen dugu.

Larunbatean plaza jendez bete zen ordu luzez. Zer sentitu zenuen hainbeste jende Javiren omenez elkartuta ikustean?

Izugarrizko harrotasuna sentitu nuen. Jende asko etorri zait esatera nire anaia harro egongo litzatekeela egin duguna ikusita. Plazatik pasatu eta gelditu zaitzke kontzertua ikustera, baina jende asko propio etorri zen nire anaiagatik. Eta hori niretzat ohore handia da.

Nola bizi izan zenuen arratsaldean antolakuntzaren barruan?

Goizeko hamarretan hasi nintzen izerditan, eszenatokia muntatzen, eta goizaldeko laurak arte ez nintzen gelditu. Bitarte hartan guztian hodei batean bezala egon

nintzen. Dena primeran atera zen, antolakuntza ikaragarria izan zen eta jendea lehenengo minututik inplikatu zen. Ezin zen hobeto atera.

Zer esan nahi du zuretzat orain haren izenak musikaren eta Ermuko kaleen artean hain presente jarraitzeak?

Nire anaia beti izan da oso pertsona diskretua. Ez zuen sare sozialik ere, ez zuelako inoiz protagonismoa bilatu nahi izan. Eta orain, bat-batean, hura da protagonista. Kontzertua gauerdian inguruan amaitu genuen, eta goizaldeko laurak aldera arte

"Nire anaia musika zen, eta omenaldia horrela behar genuen, musikaren bitartez"



Javi Mellado Sanchez "Enano" 2024an. MIKE PIZARRO



Storbais, omenaldian. ANDONI CONDE



Nemon taldea kontzertuan. G. MENDIETA

jende asko hurbildu zitzaidan esatera egin genuena izugarria izan zela.

Nik ez dut sentitzen ezer egin dudarik. Hori merezi zuen hark, eta horrela atera zen. Eskerrak gora bidali behar ditugu.

Horrelako jaialdiek tokiko musika eszena bizirik mantentzeko ere balio dutela uste al duzu?

Erabat. Jaialdiaren aurretik bazkaria izan genuen, eta pertsona batek *JaviFest* betiko egitearen ideia planteatu zidan. Gustatzen zait urtero horrelako zerbait egiteko aukera izatea: talde asko, bakoitzak denbora gutxiago jotzeko. *JaviFest* izena ez zait hainbeste gustatzen, beste izen bat bilatu beharko dugu, baina aukera bat ere bada hasten ari diren taldeentzat herriko eszenatokian jotzeko.

Zer nabarmenduko zenuke jaialdiko bost edo sei orduetatik?

Nire ustez, une politenetako bat gu geu eszenatokira igo ginenekoa izan zen. Nire anaiak gorde-ta zituen inoiz entzun ez nituen abesti batzuk. Horietako bat hartu eta jo egin genuen. Une hura eta *Castle Rock* azken aldiz jotzea izugarria izan zen. Izan ere, larunbatean *Castle Rock* az-

ken aldiz entzun zen zuzenean; niri dagokidanez, behintzat.

Beste taldeek nola bizi izan dute jaialdia? Zer erreakzio jaso duzue ondoren?

Nire anaiarekin lehenago jo zuen jendeak parte hartu zuen, eta eszenatokitik jaitsi eta besarkatzera etortzen zitzaizkidan. Batzuek begiak malkoz beteta amaitu zuten. Oso polita iruditzen zait horrelako zerbait lortu izana.

Taldeak etorri eta "Enano harro egongo litzateke honekin" esatea oso hunkigarria izan da. **Eta, azkenik, zerekin geratzen zara larunbata bizi ondoren?**

Bizitza osoko lagunekin. Larunbatean ikusi nuen behar dituzunean hor dauden pertsonak izan badirela. Eta larunbateko horren adibidea da. Horrek erakusten du nire anaiak gauzak ondo egin zituela.

"Hori merezi zuen Javik, eta horrela atera zen; eskerrak gora bidali behar ditugu"

Ermua-Mallabia OLHUIk plaza guztiak beteta hasi du ikasturtea

Ikastetxeak eskaintza osoa bete du, beste urte batez, 45 ikasle berrirekin

Garazi Mendieta

Ermua-Mallabia Oinarritzko Lanbide Heziketako Udal Institutuak plaza guztiak beteta ekin dio 2026-2027ko ikasturteari, beste urte batez. Guztira, lehen mailako 45 ikasleak osatuko dute aurtengo promozioa, eta horietatik zortzi dira Ermua eta Mallabikoak: sei Ermukoak eta bi Mallabikoak. Gainerako 37 ikasleak inguruko beste udalerrri batzuetatik datoz.

Ikasle berrien jatorriak erakusten du ikastetxeak eskualdean duen erakargarritasuna. Izan ere, aurtun, Eibar, Elgoibar, Ondarroa, Soralue, Deba, Mendaro, Elgeta, Durango, Abadiño, Zaldibar, Ordizia, Zornotza eta Bilboko ikasleak ere izango dira lehen mailako geletan.

Ikastetxeak hiru ikastaro eskaintzen ditu, ikasleen askotariko interes eta etorkizun profesionaletara egokitzeak: ile-apainketako eta irudi pertsonaleko laguntzailea, ibilgailuak konpontzeko laguntzailea eta elementu metalikoen fabrikazioko langilea, mekanizazioaren arloan. Horrekin batera, OLHUIk azken urteetan



Ermua-Mallabia OLHUIko ikasleek iaz egindako ortu ekologikoa. ERMUA-MALLABIA OLHUI

erakutsi duen joerari eutsi dio, eta ikasturte berria plaza guztiak beteta hasi du.

Hiru ikastaroek hainbat arlo profesionaletan oinarritzko gaitasunak eskuratzeko aukera ematen dute, eta, horrela, ikasleek prestakuntzan aurrera egiteko eta lan-merkatura hurbiltzeko oinarriak dituzte.

Elkarbizitza eta arreta izango dira ardatz

Irailaren 7an hasi zen 2026-2027ko ikasturtea, eta, plaza guztiak betetzeaz gain, ikastetxeak be-

rrikuntza batzuk jarri ditu martxan elkarbizitza eta ikasleen arreta indartzeko. Besteak beste, Bizikidetza Plan berria eta Lan-esparru Koordinatua ezarri ditu, ikasleen beharrei modu koordinatu eta inklusiboagoan erantzuteko.

Prestakuntza-eskaintzarekin batera, ikastetxeak prestakuntza dualaren aldeko apustua sendotzen jarraitzen du, ikasleek lehen mailatik tokiko enpresetan eta lan-ingurune errealetan gaitasun profesionalak garatzeko aukera izan dezaten.

Euskara ikasteko dirulaguntzak abian dira Ermuan eta Mallabian

Ermuan urriaren 27ra eta Mallabian urriaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira dirulaguntzak lortzeko eskabideak

Garazi Mendieta

Ermuko eta Mallabiko udalek euskara ikasteko dirulaguntzak jarri dituzte abian, herritarrek euskara ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten. Bi udalerrietan errolatutako pertsonen zuzendutako laguntzak dira, baina deialdi bakoitzak bere baldintzak eta zenbatekoak ditu.

Ermuan, matrikularen %100erainoko laguntzak

Ermuko Udalaren kasuan, eskabideak urriaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dira, egoitza elektronikoaren bidez edo Abiapuntun. Laguntzaren zenbatekoa ikaslearen profilaren arabera zehaztuko da: %100eko laguntza jaso ahal izango dute ikasle estrategikoek, 30 urtetik beherakoek, langabeek eta behe-mailako ikasle hasiberriek; gainerako ikasleek, berriz, matrikularen %50 jasoko dute.

Dirulaguntza eskatzeko, besteak beste, Ermuan errolatuta egotea eta %80ko asistentzia izatea eskatzen da. Ikasleek ikasketa-prozesuarekin jarraitu beharko dute B2 maila lortu arte.

Mallabian, asistentziaren arabera

Mallabiko Udalak, bestalde, 3.000 euroko aurrekontua bideratu du 2025-2026ko ikasturtean euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzako. Eskabideak urriaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira Udaleko Erregistro Orokorrean.

Laguntzaren zenbatekoa ikastaroetan izandako asistentziaren arabera zehaztuko da, eta matrikularen %75etik %100era bitartekoa izango da. Gutxienez %75eko asistentzia egiaztatu beharko da dirulaguntza jasotzeko. Dirulaguntza horiek Mallabian errolatutako eta udal euskaltegietan, euskaltegi pribatuetan edo homologatutako barnetegietan ikastaroak egin dituzten pertsonen zuzenduta daude.

Eskabideekin batera, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Ermuan, besteak beste, ikaslearen ibilbide-orria eta, dagokionean, bankuko helbideratze-orria aurkeztu beharko dira; Mallabian, berriz, notatun agiriaren kopia, matrikularen ordainagiria eta euskaltegiaren asistentzia-ziurtagiria.



Euskara eroso
ikasi eta bizitzeko



KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

2026/2027 MATRIKULA ZABAIK

Irailaren 25era arte - hasta el 25 de septiembre

- MAILA GUZTIAK A1, A2, B1, B2, C1, C2 TODOS LOS NIVELES
- ORDUTEGI MALGUA - HORARIO FLEXIBLE
- BERBALAGUN

% 100ERA ARTEKO DIRULAGUNTZAK - SUBVENCIONES DE HASTA EL 100 %

Zearkale 16, behea. 48260 Ermua

• kaltxango@aek.eus • 607 623 961 • 688 746 480

DIRULAGUNTZAK | BECAS

EUSKO JAURLARITZAK

ERMUKO ETA MALLABIKO UDALEK

LAGUNTZA BEREZIAK - AYUDAS ESPECIALES:

A1 eta A2 (Ordaindu 120 euro behin, ikasi B1 arte - Abona 120 euros una vez, aprende hasta B1); C1 (16-18 URTE)

Oporraldia festa betean bukatu dute Zengotitan

Zengotitako bizilagunek ez zuten nahikoa izan Andra Mari jaiekin, eta abuztuaren 29tik 31ra bitartean ekintza-sorta potoloa prestatu zuten auzoko festak ospatzeko; besteak beste, erromeriak, dastaketak, txapelketak eta herri-kirol eta dantza erakustaldiak izan zituzten

Ander Gomez

Hilaren 29an jantzi zuten zapi gorria Zengotitako auzotarrek, eta, txopoa altxatuta eta txapligua botata, bizikleta-igoera egin zuten. Hemezortzi helduk eta hamar umek hartu zuten parte, eta Ekain Biritxik irabazi zuen; gazta jaso zuen sari gisa, eta beste hainbat banatu zituzten umeen artean. Ondoren, hanketako azken indarrak Petite eta bere lagunen erromerian agortu zituzten dantzan. Biharamunean, indarrak berreskuratuta, herri-kiroletan duten trebezia erakutsi zuten mallabitarrek: harri-jasotzean abendibartarrak aritu ziren, Goizeder, Aritz eta Izei; aizko-rarekin, berriz, Ioritz Gisasola eta Nerea Arruti izan ziren. Ondoren, bolo-txapelketa nagusia jokatu zen, eta Sebas Aran-zabal elgetarrak jaso zuen lehen saria: 100 euro eta txapela.

Abuztuarekin batera bukatu ziren jaiak, domeka eguerditik iluntzera arteko egitarauarekin. Zengutako auzotarren alde egin-dako mezaren ostean, dantza ugari plazaratu zituzten Gazte Alaiak taldekoek. Ondoren, jaie-



Bisitari ugari ekarri zituen asto-probak. V.M.

tako bigarren bolo-txapelketa jokatu zen, eta orduan ere Aran-zabal izan zen garaile, bezperan lortutako sariari 50 euro eta gazta gehituta. Arratsaldean kintopeko asto-probak egin ziren. Hirugarren postua egin zuen Mikel Lizarazu zumarragarra, 46 untzerekin; bigarren sailkatu zen Mallabia ordezkatzan zuen Unai Sarrionandia, 55 untzerekin; eta txapela Oikiako Artabilla baserrikoek jantzi zuten, 62 untzerekin. Ansorregi eta Alabier trikitilarien erromeriarekin dantzan aritu eta Lumagorri oilasko erre-a jan ostean, eskorgaren zozketa-rekin itxi zituzten aurtengo jaiak. Zerbaki irabazlea 252 izan da. Irabazlea irailaren 15a baino lehen aurkeztu ezean, 1.917 zenbakidun txartelaren jabeak jasoko du saria.



Izei eta Aritz Abendibar, zilindroarekin. V.M.



Ioritz Gisasola, aizkorarekin. V.M.



Goizeder Abendibar, kubikoarekin. V.M.



Dantzariak eta harri-jasotzaileak elkarrekin. VALENTIN MUGARZA MARTINEZ



Txistulariak eta Gazte Alaiako gaztetxoek, dantzan hasi aurretik. INTZA MARKINA



Lagunarteko bizikleta probako partaideak, lasterketa bukatu ostean. ZORION ALBERDI



Auzotarrak barra ostean, jaiak aurrera ateratzeko ezinbesteko lana egiten. V. MUGARZA

Abian da hesirik gabeko zirkulazio sistema berria, Erregetxerako noranzko bakarrarekin

Zubi Nagusian ipinitako totemak kamera bidez zainduko ditu arau-haustekak

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Aste honetako astelehena ezkerro, zirkulazio sistema berria dago indarrean erdiguneko oinezkoen gunean. Aldaketa nagusiak dira herriko oinezkoen gunerako sarrerak galarazten zuten hesiak kendu egin dituztela, orain Zubi Nagusiko totemak kontrolatzen duela zirkulazio arauak betetzen diren ala ez eta Erregetxetik behera ezin dela autoz jaitxi. Seinale berriak ere jarri dituzte, sistemaren zein arauen berri emateko, Erregetxean, Zubi Nagusian eta Santa Ana eta Gabolats kaleetan.

Oinezkoen guneko zirkulazioari dagokionez, Zubi Nagusiko totemak semaforoa eta kamerak ditu. Semaforoa gorri dagoenean, hau da, erdigunea oinezkoendako den ordutegian, kamerek Zubi Nagusitik pasatzen diren zein Erregetxera igotzen diren autoen erretratuak atera eta Udaltzaingora bidaltzen dituzte. Eta ibilgailu horrek erdigunera sartzeko baimenik ez badu, gidariak isuna jaso lezake. Oinezkoen ordutegia orain arteko berbera da: astelehenetik barikura, 15:00etatik aurrera ezin da oinezkoen gunera sar-

tu; zapatuetan, 12:00etatik aurrera; eta domeketan eta jaiegunetan, egun osoan. Halaber, zapatu eguerditik aurrera ezin da zubian aparkatu. Udaltzainburuak esan duenez, sistema berria izan arren, "ez da ezer aldatzen; sistema orain arteko berbera da, baina hesi gabe, eta Erregetxetik behera ezin dela autoz jaitxi".

Adaptazio prozesuan

Sistema berriarekin, oinezkoen gunera sartzeko Udaltzaingoa dagoen baimen-orria bete behar da. Norberaren eta autoaren da-



Zubi Nagusiko totemak semaforoa eta kamerak ditu.

tuak idatzi, zein kaletara sartu nahi den esan eta oinezkoen gunera sartzeko arrazoiak azaldu behar dira. "Pisuzko arrazoiak onartuko dira. Adibidez, mudantza bat, zamalan handiak... Oterantzean, Santa Ana kalean garajea dutenek oinezkoen gunera itxita dagoenean Santa Ana ka-

letik irten beharko dute, eta Gabolatsekoek, hango zubitik", esplikatu du Udaltzainburuak.

Egunotan, adaptazio prozesuan dago sistema, eta, isunak jarri barik, abisuekin ari dira udaltzainak arau-haustekak ohartarazten. Baina hori bukatutakoan isunak izango dira arau-hausleendako.

Asier Heriz eta Iñaki Saez oroitu dituzte bihar, 25. urteurreneko ekitaldian

Bi gazteak auto-istripuz hil ziren, Avilara Lourdes Txurruka bisitatzeraz zihoazela

U.M.Z. SORALUZE

Bihar, zapatua, Asier Herizen eta Iñaki Saezen omenezko oroi-men ekitaldia egingo dute. Bi gazteen heriotzaren 25. urteurrenarekin batera, eta, horrexegatik, ekitaldi berezia egingo dute.

Berezitasunen artean dago, batetik, Asier Herizen eta Iñaki Saezen senideak eta lagunak egoteaz aparte, Egiari Zor Fundazioko ordezkariak ere hartuko dutela biharko hitzorduan. Bestetik, ekitaldia Plaza Barri- xan egingo dute, eta ez mendi-

gainean, ohikoa den moduan. Horrez aparte, bestelako keinuak ere izango ditu oroimen-ekitaldiak, senideei eta lagunei "maitasuna transmititu eta gertatu behar ez ziren horiek salatzeke". 19:00etan hasiko da.

Avilara bidean istripua

Asier Heriz eta Iñaki Saez 2001eko irailaren 8an hil ziren, auto-istripuan, Avilako Brievako kartzelan zegoen Lourdes Txurruka herrikidea bisitatzeraz zihoazela. Istripuan oso larri zauritu zen Irantzu Benito. Gertakariak sa-

min handia eragin zuen. Harrezkero, urtero egiten dituzte oroi-men ekitaldiak, gazteak oroitu, senideei eta lagunei elkartasuna eta babesa adierazi eta istripua sakabanaketa politikak eragin zuela salatzeke. Ildo horretan, biktimekiko aitortza ere aldarrikatu dute urteotan.

Eibarren eta Soraluzen

Aurten, biharko ekitaldiaz aparte, gehiago ere egin dituzte. Eibarren, Amañako festetan atarian zein aste honetan, Arrate Egunean. Soraluzen, berriz,



Hainbat eibartar eta soraluzetar, Arrate Eguneako elkarretaratzean.

martitzenean, istripua gertatu zeneko egunean, 100 lagun elkartu ziren Plaza Barri- xan.

Elkarretaratzeen testuinguruan, Etxerategi salatu du sakabanaketa politikak eragindako heriotzak saihestu ahal zirela "mendekuaren eta zigor erantsiaren gainetik giza eskubideak nagusitu izan balira".

Halaber, urteak daramatzate istripua jasan zuten soraluzetarren- tzako biktimekiko aitortza aldarrikatzen, Estatuaren indarkeria bik- tima gisa, baina, oraingoz, ez dute lortu. Etxerategi datuen arabera, salbuespen espesxe politikak, zu- zenean zein zeharka, hamasei senide edo lagun hil ditu.

Batzoki
Asteburuetako menuak,
plater konbinatuak...
Plaza Zaharra (Soraluze) Erreserbak: 638 91 15 97

Txoko
Eguneko menuak,
plater konbinatuak,
hamburguesak,
egitarak, pizza,
gosaia...
Entzuten ari zaren
Tel. 943 75 17 01

IZAGUIRRE
Igeltseritza
Erakik berriak • Kalitateko emaitza
Erreformat • Era guztietako igeltseritza
50 urteko esperientzia • 610 638 913

ALBISUA
TAILER MEKANIKOA
Mekanizatuak piezak • Erremintak
Mendiola Industrialdea 14-4 • 161 PK.
Tel. 943 75 21 42 • Fax 943 75 24 12
E-mail: albisua@albisua.net

aras
zehaztasun handiko piezak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 • 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tomilleriaaras.com
www.tomilleriaaras.com

EXGA S.L.
Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura
679 623 584
Soraluze

Armendi
Jatetxea
Sukalde
tradizionala
Eguneko menuak
Asteburuetako
menu berezia
Karta
Burduntzian
erretako bildotsa
Etxe frikak
Soufflés
Tel.: 943 75 10 02

ELIZPE
HORTZ KLINIKA
Tel. 943 75 25 67

Aste honetan bukatuko du Txurrukeneko bigarren murala Udane Juaristi 'Udatxo'-k

Lau argazkirekin egindako muntaiaren emaitza da Arantzazu parkeko murala

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Joan den asteeko egunean hasi eta aste hau bukatu aurretik amaituko du Txurrukeneko bigarren murala Udane Juaristi *Udatxo* margolari azkoitiarrak.

Lau argazkirekin egindako muntaia izango da emaitza; hiru argazki auzotarrek emandakoak dira, eta bestea, artistak berak lortutakoa.

Muralaren protagonistak

Auzotarrek lagatuko hiru argazkietan azaltzen diren protagonistak erraz ezagutzen dira muralaren; haien senideek eta

ezagunek dioten moduan, "eder-to asko plasmatu ditu".

Erdigunean dauden hiru emakumezkoak honakoak dira, ezkerretik hasita: Nati Agirre, Teresa Oregi eta Carmen Arrieta, eta karta-jokoan ageri dira, Txurrukenen sarri egiten zuten moduan. Sartu dut garai bateko argazki zahar batetik ateratako irudia, zuri-beltzeko argazkia, andreak kartetan erakusten duena. Hainbat belaunalditako emakumeak karta-jokoan; *Udatxo*-k esplikatu duenez, "*kuadrilla* kontzeptua" adierazi nahi izan du horrekin.

Muralaren beheko partean, berriz, egur-mozketan azaltzen dira beste hiru emakumezko: Bittori Lopez eta Bittori Etaio ama-alabak eta Mercedes Hidalgo, hain zuzen ere. "Osintxuko batek, *Egotza* tailerrean lan egiten zuen batek, atera zien argazkia. Lanetik irten zen batean ikusi zituen egurra moztzen, eta esan zien: 'Bihar ikusiko duzue!'. Eta hurrengo egunean argazkia atera zien", kontatu du Clotilde Fernandezek, Mercedes Hildagoren alabak.

Eta goiko ume kuadrillakoak honako hauek dira: Salonzapiko



Udane Juaristi *Udatxo*, muralari begira, eguaztenean. U.M.Z.

Pedro eta Simon Etxeberria, Rosa Etxeberria, Ana Rosa Maiztegi, Maite Etxeberria, eta erretratuan bizkarra ematen Bea Maiztegi dago.

Murala osatuko du auto baten eta errepide zati baten marrazkiarekin, eta koloreak auzoko

ezaugarriak aintzat hartuta erabili ditu; berdea, adibidez, hango tolo berdeekin bat egiten duelako. Oro har, auzotarrak benetan gustura daude emaitzarekin. Eta Udane Juaristik esan du bera ere Txurrukeneko sentitzen dela, noialabait.

Musika, dantza eta lehiaketa artean joan dira San Martzial auzoko jaiak

Egoitz Unamuno Loidi SORALUZE

Ohikoa den legez, karitateko salda eskainiz hasi zituzten jaiak joan den zapatuan San Martzialen. Eguerdian, ekitaldi laburra egin zuten ermita barruan, ermitaren, santuen eta berriki sortu duten Zelemeterio jaietako pertsonaiaren historia eza-

gutarazteko, eta, ostean, dantza saioa zelaian, herriko eta bailarako musikariek girotuta. Bitartean, zortzi bikotek paellak prestatzen jardun zuten.

Hiru lehiaketa

Bazkalurretik jakinarazi zuten paella lehiaketaren emaitza:

Andoni Calles eta Jorge de Castro izan ziren garaile. Bazkalostean, Urko Trebiño eta Ibon Goenaga gazteak gailendu ziren musean; eta txapel jaurtiketan, berriz, gaztetxoetan Aetz Lasak jantzi zuen txapela eta nagusietan, Ximun Larrañagak. Biak sailkatu dira Tolosarako.



Paella lehiaketako epaileak eta irabazleak. EGOITZ UNAMUNO



Txapel jaurtiketa. E.U.

KEXA

Auzoko zikinkeria eta arratoiak



San Andres auzoko J.A.O. bizilagunak kexu bikoitza helarazi du. Batean dio jaien ondoren auzoko plaza bakarrik garbitu zutela udal langileek, gainerako zikinkeria eurek batu behar izan zutela; bestetik, dio oilotokira sartzen zaizkion arratoiaren kontra Udalaren laguntza eskatu arren ez diotela erantzun ere egin. "Kalean egiten dituzte arratoiaren kontrako kanpainak; hemen zergatik ez? Guk berdin-berdin ordaintzen ditugu zergak", dio.

soraluze@barrena.eus / 943 75 13 04

MABEL
ILEWPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30

Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

Illepaindegia
Estetika
Solariuma

Gabriel 6, beheko - Tel.: 943 75 13 13 - 682 51 14 04

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 682 234 609
Sagar Errika Kalea 2 - 48940 SORALUZE
e-mail: odrileihoa@gmail.com

SORALUZE
MOTORA

Mendiola ind. 13
Soraluze

474 554 817 - 943 75 21 38

itv



Ezoziko futbol-zelaia, belar artifizial barik, martitzenean. U.M.Z.

Denboraldi hasiera etxetik kanpo, futbol-zelaiko belar aldaketarengatik

Datorren astean, Antzuolan, Bergaran eta Eibarren entrenatuko dira; lehen partiduak Bergaran jokatu dituzte

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Abuztuaren erdialdeaz gero obretan dago Ezoziko futbol-zelaia. Berdegunea aldatzen ari da Fieldturf Poligras enpresa, 253.425,34 euroko aurrekontuarekin, eta, aurreikuspenen arabera, urriaren 5ean bukatuko dute. Ezinbesteko aldaketa egiten ari dira, berdegune artifizialaren erabilgarritasuna 8-15 bat urtekoa baita eta Soraluze-ko futbol-zelaian 2010ean ipini baitzuten oraingoa.

Hortaz, futbol-zelaia itxita dago, eta Soraluze Futbol Taldeak etxetik kanpo egin du denboraldiaurrea, eta 2026-2027ko denboraldia ere halaxe hasiko du.

Zelaiak laga

Hain justu, abuztuaren 24ko astean hasi zuten denboraldiaurrea Sorako gorengo mailako taldeek, eta Antzuolako Eztala futbol-zelaian egin zituzten entrenamendu saioak, aste honetan izan ezik, Eibarko anexoan entrenatu baitira.

Klubeko zuzendaritzatik esandakoaren arabera, datozen hiru asteotan Antzuolako futbol-zelaian, Eibarko anexoan zein Bergarako futbol-zelaian egingo dituzte entrenamenduak. Tokian tokiko futbol taldeek musu-truk laga dizkiote futbol-zelaiak Soraluze-ko taldeari.

Partiduak, Bergaran

2026-2027ko liga txapelketari dagokionez, berriz, Erregionalekoek,

gazteek eta Gorengo Mailako kadeteek irailaren 20ko asteburuan hasiko dute txapelketa, baina hiru taldeek etxetik kanpo dituzte hitzorduak. Gainerako mailetakoko taldeek, berriz, irailaren 27ko asteburuan hasiko dute liga. Hain zuzen, asteburu horretan ligako hitzorduak dituzten zazpi taldeetatik lau etxean jokatu dute, eta Bergarako lagako dizkie horretarako futbol-zelaiak.

Soraren futbol eskolari dagokionez, berriz, urrira arte, gutxienez, ez da hasiko. Beraz, litekeena da txikienek kanpora joan beharrik ez izatea.

Inoizko talde gehien

Osterantzean, nabarmentzekoa da inoizko talde kopururik handienarekin ekingo diola denboraldiari Sorak, bina talde izango baititu gazte, kadete zein infantil mailetan. Eta gogoan izan behar da talde nagusia mailaz igo zela joan den denboraldian eta aurten Erregional Mailan lehiatuko dela.

Inoizko talde gehien izanda ere, talde bakoitzarendako bina entrenatzaile izateko filosofiari eustea lortu du Soraluze Futbol Taldeak.

Entrenamenduak Antzuolan, Eibarren eta Bergaran egingo dituzte, eta partiduak Bergaran jokatu

EH Sukarraren kontzertuarekin datoz Mesedeetako jaiak, irailaren 18tik 20ra

Bazkarirako tiketak salgai daude Asigorreren eta Iratxon, menu bereziarekin, eta erraldoi berriak ere izango dira jaietan

U.M.Z. SORALUZE

Irailaren 18tik 20ra bitartean ospatuko dira aurtengo Mesedeetako jaiak.

Indartsu hasiko dira, EH Sukarra talde mitikoaren kontzertua antolatu baitute barikurako, 23:00etan hasita. Antolatzaileek esplikatu dutenez, "iazko festak, nahiz eta eguraldia lagun ez izan, ondo" joan zitzaizkien, eta "aurten apustu potoloagoa" egitea bururatu zitzaien: "EH Sukarra taldea ekartzea". Hori bai, aitortu dute horrek "lan-karga handiagoa" ekarriko diela, "langile gehiago, janari gehiago eta jende gehiago aurreikusten" dutelako.

Bazkariko tiketak salgai

Bestalde, zapatuko auzoko bazkarirako ere aldaketak iragarri dituzte, "menu desberdina": helduentzat, paella, okela-bolak, pantxina eta kafea –17 euro–; eta umeentzat, makarroiak, okela-bolak eta jogurta –12 euro–. Tiketak Asigorreren eta Iratxon daude salgai. Azken horrekin lotuta, ohartarazi dute tiketetan irailaren 20a ipintzen duen arren, irailaren 19an izango dela.

Txapelketak

Osterantzean, *barrixo*-ko jaietan ez dira faltako ohiko txapelketa jendetsuak: musa, tutea, hiruko areto futbola, tortilla-txapelketa, toka, mahai-futbol txapelketa... Karta-jokoen kasuan, tutean zapatu arratsaldean egingo dute, 16:30ean, eta musean, berriz, zapatu gauean, 22:30ean. Hiru



EH Sukarra, 40 Minutu Rock-en. AITZOL

sari izango dira: Edurtzan bazkaria, 60 eurotan baloratutako otarra eta 40 eurotan baloratutako otarra, hurrenez hurren.

Zapatuan, 17:00etan hasiko da hiruko areto futbol txapelketa, eta 19:00etan, mahai-futbol txapelketa.

Umeendako

Bestelakoen artean, umei zuzenduta puzgarriak izango dira zapatuan; eta domekan, erraldoiak eta buruhandiak eta apar festa. Eta musikaren atalean, zapatuko erromeria Ahantzi taldeak girotu ondoren, 01:00 aldera Trujen eta Estrujenak ibiliko dira *barrixo*-a dantzant jartzen.

Jai Batzordeak esan duenez, Aste Santu ondoren hasi zen antolaketan hainbat laguneko taldea. "Herriar guztiak" gonbidatu dituzte jaietara: "Haur, gazte, heldu... ongiatorriak izango dira".

50 lagunek baino gehiagok eman dute izena Marraskilo Tourrerako

U.M.Z. SORALUZE

Marraskilo Tour, Soraluze inguruko mendietan egiten den mendi martxa, urriaren 3an izango da aurten, eta joan den astean zabaldu zuten izena emateko epea.

Ohikoa den moduan, mendi martxak bi ibilbide izango ditu: luzea eta laburra. Ibilbide luzeak 35 kilometro izango ditu, eta

1.800 metroko desnibela. 06:00etan abiatuko da, Plaza Barritik. Ibilbide laburra aukeratzen dutenek, berriz, 20 kilometroko bidea izango dute, eta 1.000 metroko desnibela. Bigarren horiek 08:00etan abiatuko dira.

200 leku, online

Aste honetako eguazteneko datuen arabera, dagoeneko 59 la-

Irakurle klubetan izena emateko aukera zabaldu dute

U.M.Z. SORALUZE

Udal liburutegiak 2026-2027ko ikasturteko euskarazko nahiz gaztelarazko irakurle taldeen egitaraua aurkeztu eta haietarako izen-ematea zabaldu du. Bi kasuetan, bi hiletik behin elkartzen dira taldeak, euskarazkoa astelehenetan 19:00etan eta gaztelarazkoa eguaztenetan 18:30ean. Hamar urteko ibilbidea dauka Soraluze-ko euskarazko irakurle taldeak; gaztelarazko irakurle taldea, berriz, 2026ko urtarrilean hasi zen.

Irailetik maiatzera

Euskarazko Irakurle Taldearen kasuan, irailaren 21ean, astelehena, abiatuko du ikasturtea, Hang Kang idazlearen *Barazkijalea* liburuarekin. Hala, maiatzaren 17ra bitartean, honako liburu hauek irakurri eta partekatuko dituzte: *Frankenstein agurgarria* –Ana Galarraga eta Petti–, *Katona* –Antxiñe Mendi-zabal–, *Monogamoak* –Iñigo Astiz– eta *Etxe bat norberarena* –Yolanda Arrieta–.

Gaztelarazkoa, berria

Gaztelarazko Irakurle Taldeari dagokionez, berriz, urriaren 21ean elkartuko da, Louise Erdrich idazlearen *La casa redonda* liburu ardatz hartuta. Eta, ekainaren 16ra bitartean, liburu hauek irakurriko dituzte: *Tengo miedo torero* –Pedro Lemebel–, *El encaje roto* –Emilia Pardo Bazan–, *El cielo de la selva* –Elaine Vidal Madruga– eta *El viaje vertical* –Enrique Vila Matas–.

gunek eman dute izena, gazteek, helduek zein beterranoek. Irailaren 23ra arteko epea dago izena emateko, edo plazak bukatu arte. Aurten, berrikuntza moduan, plaza gehiago eskainiko dituzte online: 200, guztira. Gainera, probaren egunean bertan ere eman ahal izango den arren izena, aurrez online ematen dutenak bakarrik joan ahaliko dira bazkarira, eta beren neurriko kamiseta izango dute bermatuta. Ibilbide laburraren izen-ematea 20 euro da, eta luzearena, berriz, 25 euro.

Abian da Animadeba, animazio analogikoa eta artisau-sorkuntza ardatz hartuta

Herenegun, hilaren 9an, hasi zen bidea egiten jaialdiaren hemeretzigarren aldia. Lau egunen ostean, bihar, hilak 12, emango diote amaiera



Andrea Ibañez –EITB Media–, Miren Aperribay –zinema-banatzaila–, Aitor Oñederra –Animadebaren zuzendaria–, Alazne Txurruka –Debako alkatea– eta Arkaitz Olea –San Telmo museoko bitartekaritzako arduraduna–, ekimena aurkezten. ANIMADEBA

Nerea Bedialauneta Alkorta

Beste behin ere, Euskal Herriko animazio-zinemaren, publikoaren, sortzaileen eta industriaren arteko topagune izango da Deba, egunotan ospatzen ari den Animadebari esker. Herenegun, hilak 9, ekin zioten nazioarteko animazio-jaialdi ezagunari, eta bihar bitarte –hilak 12–, askotariko kultur proposamenek hartuko dute herria.

Astelehenean Donostiako San Telmo museoan egindako agerraldian aurkeztu zuten aurten go jaialdia, eta, bertan azpimarratutakoaren arabera, adimen artifiziala puri-purian dagoen garaiotan –eta bilakaera teknologikoari bizkarra eman gabe–, animazio analogikoa aldarrikatuko du hitzorduek, eta artisau-sorkuntzako prozesuen eta lanbidearen zaintzaren balioa nabarmendu.

Nazioarteko Film Laburren Lehiaketari dagokionez, orotara munduko 130 herrialdeetatik iritsitako 1.457 lan jaso dituzte aurten; horietatik 41 hautatu dituzte lehiaketan parte hartzeko. Sail Ofizialean lehiatuko dira hamar, eta, horien artean, nazioartean oihartzuna duten Theodore Ushev zuzendari eta artista ezagunaren *La Vie Avec Un Idiot* eta Bea Lemaren *El cuerpo de Cristo* nabarmendu dituzte. Horiez gain, EHU Zuzendari Berriak saileko filmak –lehia barruan– eta Panorama sailekoak –lehiaketaz kanpo– ere ikusi ahal izango dira.

Berritasunak

Animadebak etorkizuneko ikusleak heztearen garrantzia azpimarratu nahi izan du aurten, eta, asmo horrekin, Animatxiki izeneko sail berria jarri du mar-

txan, Mendata eta Luzaro ikastetxeekin elkarlanean. 7 eta 8 urte arteko haurrentzako pentsatutako tarte horretan hamar film labur izango dira ikusgai.

Ikusle gazteenekin lotuta, gainera, Mendata ikastetxearekin batera sortutako Epaimahai Gaztea ere estreinatuko dutela jakinarazi dute. Hala, Debako gazteek eurek izango dute lehiaketako filmetako bati sari berezia emateko ardura.

Epaimahaia eta gonbidatuak

Hiru adituk erabakiko dute aurten zeintzuk izango diren Sail Ofizialeko eta EHU Zuzendari Berriak saileko garaileak: Lara Bellon ikertzaile artistiko, zinema-programatzaile, irakasle eta kultur langileak; Spela Cadez animaziozko zinemako zuzendari eta ekoizle esloveniarrak; eta Hugo Covarrubias *stop-motion*

Egitaraua

OSTIRALA 11

- **09:00** Epaimahai gaztearen ikustaldia, Mendata institutuan.
- **10:00** 'Animazio-jaialdiak eta horien eragina' lan-saioa, Rocio Benaventerekin, Hiru Uhinak hotelean.
- **11:00** Makusi plataformako 'Zientzia piztia' saioa, Kutxa Zurian.
- **11:30** 'Animazio independentea ekoizten' hitzaldia, Spela Cadez-en eskutik, Hiru Uhinak hotelean.
- **12:45** 'Lehenik marraztu, gero animatu' eskola magistrala, Jose Luis Agredarekin, Hiru Uhinak hotelean.
- **17:00** Festival gonbidatuetako lanen proiektzioak, Kutxa Zurian –sarrera: 4 euro–.
- **19:00** Sail nagusiko lanen proiektzioa, Kutxa Zurian –sarrera: 4 euro–.
- **20:00** 'La bobina' podcasta, Kutxa Zuriko terrazan.
- **21:00** EITB Sariaren banaketa Jose Luis Agredari, Kutxa Zurian.
- **21:15** Proiektzioa: 'Dekoratua', Kutxa Zurian –sarrera: 4 euro–.
- **23:00** Kontzertua: Maskak, Kutxa Zuriko terrazan.

- **00:00** DJ saioa: Siwanaba, Kutxa Zuriko terrazan.

LARUNBATA 12

- **10:00** Case study bideojokoak, Kultur Elkartean.
- **10:00** 'Stopmovidas' familieiei zuzendutako jarduera, Hiru Uhinak hotelean.
- **12:00** 'Joko-logikak' hitzaldia, Violeta Moldes Rivasen eskutik, Kultur Elkartean.
- **13:30** Kontzertua: Xahu, Itsas Labarrak tabernan.
- **17:00** Proiektzioa: 'Mumbo Jumbo', Kutxa Zurian –sarrera: 4 euro–.
- **19:00** Sail nagusiko lanen proiektzioa, Kutxa Zurian –sarrera: 4 euro–.
- **20:00** Bingoaaaa, Alvina Stardust eta Divina Comediarekin, Kutxa Zuriko terrazan.
- **22:00** Sari banaketa ekitaldia, Kutxa Zuriko terrazan.
- **22:30** Kontzertua: Otamar, Kutxa Zuriko terrazan.
- **00:00** Kontzertua: Asfa, Kutxa Zuriko terrazan.
- **01:00** DJ saioa: Txola ta Potxola, Kutxa Zuriko terrazan.

animazioan espezializatutako ikus-entzunezko eta antzerki zuzendari txiletarrak. Hain zuzen, azken bi horiek izango dira aurtengo gonbidatu bereziak.

Bestalde, tokiko jaialdiak urtero gonbidatzen du ikus-entzunezkoen jaialdi bat berera, eta, aurten, Vienan egiten den Tricky Women Tricky Realities-en txanda izango dela aurreratu du. Bihar, 17:00etan hasita, bertako lanen aukeraketa bat proiektatuko dute.

EITB Saria

Hirugarren urtez jarraian, euskal animazioaren ibilbidea ikusarazteko eta saritzeko sortutako EITB Saria ere banatuko dute gaur, hilak 11. 21:00etan Kutxa

Zurian egingo den EITB Galan, Jose Luis Agreda ilustratzaile eta zuzendari artistikoak jasoko du errekonozimendua. Ekitaldiaren baitan, gainera, sarituak arte zuzendaritza gisa egin duen *Dekoratua* film luzea ere eman go dute.

Programazioa osatzeko, Animadeba Lab gunea, topaketak, eskola magistralk eta film luzeen emanaldiak ere izango dira –sarrerak, *animadeba.com* atarian eskuragarri–. Eta, ohi bezala, zuzeneko musika zein bestelako ikuskizunak ere ez dira faltako. Gaur, esaterako, *La Bobina* podcastaren emanaldia izango da; bihar, berri, bingo berezia egingo dute, Alvina Stardust zein Divina Comidiaren eskutik.

IXOTU
BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
BERGARA - 943 044 728

IZENBE
Gosariak • Txikiteoa • Pintxoak
Itur kalea • 943 19 24 73 • DEBA

ENGLISH SQUARE
SCHOOL OF ENGLISH
Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206 • info@english-square.net

**Ikastaro trinkoak
ekainean
eta uztailean**
DBH eta batxilergoa
First eta Advanced tituluak



Zumardiko kioskoaren parean ateratako talde-argazkia. E.G.



Lehia bizia hiruko partidetan. E.G.



Arantzamendi eta Albizu, oholtzan. E.G.



180 lagun batu ziren karpan egindako herri-bazkarira. E.G.

Familia giroan ospatu du 10. urteurren festa Debasket Saskibaloia Klubak

Adin orotako jokalaririk, zaleak eta herritarrak batu ziren larunbateko ospakizunera

Izaro Aulestiarte

Irailean hamar urte beteko dira Debasketek bidea abiatu zuenetik, eta saskibaloia zaleei eta herritar guztiei zuzendutako egitarauarekin ospatu zuen urteurrena, joan den larunbatean, hilaren 5ean. Eguraldia lagun, harrera polita izan zuen deialdiak, eta antolatzaileak pozarren daude festaren ondorenean egindako balorazioan. "Oso polita izan zen, saskibaloia zaleak eta Debasketen familia elkartzeko eta adin guztietako lagun pila bat bildu ginen festan. Hamar urtean jende asko pasa da klubetik, eta ederra izan zen denok, lehengoak eta egungoak, bertan elkartzea", aipatu dute zuzendaritzako kideek.

Goizean hiruko saskibaloia partidak jokatu zituzten kioskoaren parean, hitzordurako propio eramandako pista profesionala-

rekin. Gainera, klubaren materiala saltzeko postua jarri eta Ander Salegiren argazki bilduma aurkeztu zuten zumardian; Debasketen lehenengo urteetako irudiak izan ziren bertan ikusgai. Eta, ondoren, talde-argazki jendetsua atera zuten, herri bazkariari hasiera eman aurretik.

Antolatzaileen iritziz, "primeran" joan zen bazkaria ere: "180 lagun batu ginen. Denak azaldu ziren antolakuntzan laguntzeko prest, eta oso ondo irten zen gutia, familia giroan une oro".

Aitortza ekitaldia

Bazkalostean, ekitaldi xumea egin zuen Debasketek. Besteak beste, hamar urteetako bidearen errepasoa egiteko baliatu zuten ekitaldia, klubaren eta haren jardunaren garrantzia azpimarratzeko. Bertan, omenaldia egin zieten Debasketen sortzaile Roke

Arantzamendiri eta Ander Albizuri, eta hamar urteotan egindako lanari aitortza egin; lore-sorta eta opari bana jaso zuten zuzendaritza taldea oraintsu utzi duten bi debarrek. Eta, bestalde, iaz Bigarren Mailara igotzea lortu zuen gizonezkoen senior taldearen ibilbidea goraiatu zuten urteurren festan.

Arratsaldeko saskibaloia partiden ondoren, DJ Miren Gisolak alaitu zuen gauera arte iraun zuen jai giroa.

Zuzendaritza taldearen esanetan, "errepikatze moduko festa" izan zen larunbatekoa. "Ondo pasatzeaz gain, helarazi nahi genuen mezua zabaldu genuen, Debasket familia bat dela, kluba guztiok egiten dugula eta denon lana beharrezkoa dela azpimarratuta. Oso pozik gaude, beste hamaika urtez saskibaloian jokatze indarrekin", erantsi dute.



Ibilbide marduleko bertoko surfariak, Kultur Elkartean. LAGATAKOA

Debako surfaren historia biltzen duen fanzinea kaleratu du Zurrumbilok

I.A.

Mende laurdenean betetzen duen honetan, Zurrumbilok Ur Kirol Elkartek *Debako surfaren historia 1980 eta 2026 artean* izenburuko fanzinea plazaratu berri du. Joan den ostiralean, irailaren 4an, egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta lepo bete zen Debako Kultur Elkarteko aretoa, 100dik gora lagun bertaratu baitziren.

Ander Tolosa Urcelayren testuekin eta argazkiekin jantzi dute argitalpena, Zurrumbiloren zuzendaritza taldea arduratu da liburuxka berrikustez eta Alex Turrillasek -Sutan Grafik- egin ditu maketazio eta diseinu lanak. Elkarteko kideek laburbildu

dutenez, funtsean, Zurrumbiloren historia eta surfak urte hauetan guztietan Deban izan duen bilakaera biltzen ditu fanzineak.

Lehen eta oraina hizpide

Aurkezpenaren ondoren, *Surfa lehen eta orain* izenburuko mahai-ingurua egin zuten; Iñigo Galarraga, Irene Txurruka, Sabas Bedialauneta eta Jon Egaña tokiko surfariak aritu ziren hizlari; beren iritziak trukatu eta esperientziak partekatu zituzten, eta Miren Artetxek egin zituen moderatzaile lanak.

Zurrumbiloren *merchandising* postuak, luntx txiki batek eta Iskra Selectors-en binilo-jartzeak biribildu zuten hitzordua.

Zabalik dago Nesken Binakako XIV. Pala Txapelketan izena emateko epea

I.A.

Egunotan zabaldu du Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubak Nesken Binakako XIV. Pala Txapelketa-XI. Maite Etxeberrira Memorialeko izena emateko epea. Deialdia 16 urtetik gorako palistei zuzenduta dago, eta izen-ematea irailaren 20ra arte egongo da zabalik. Azken urteotan bezala, bi maila egongo dira aukeran: lehen eta bigarren mailak.

Interesa dutenek 685 75 50 74 telefono-zenbakira deitu edo idatzi beharko dute, eta bikoteko 30 euroko kuota ordaindu. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, izen-ematea bikoteka egin behar da eta bikote bakoitzak zehaztu beharko du zein maila-

tan parte hartu nahi duen txapelketan. Hori bai, bikoteak ezingo dira egon bi palista federatuz osatuta.

Urritik abendura

Urriari hasi eta abenduan amaituko da aurtengo txapelketa. Zehaztu dutenez, neurketak Aldats pilotalekuan jokatuko dituzte, ostegun iluntzeetan eta igande goizetan. Dena den, aurrerago zehaztuko dute egutegia.

Izen-ematea zabaltearekin batera, ekimenean parte hartzeko gonbita egin du, beste behin ere, Iruleak taldeak. Iaz, hementxe bikote aritu ziren lehian: bederatzi lehen mailan eta hamar bigarrenarekin.

Kaleko 57. Margo Sariketa egingo dute bihar, larunbatez, Deban

I.A. DEBA

Bihar, hilak 12, Debako Udalak Cardenas Fundazioaren eta Haitz Haundi Elkarteko Artistikoaren laguntzarekin antolatutako sari-riketaren 57. aldia egingo da, 16 urtetik gorako artistentzat.

Parte hartu nahi dutenek zibilua jarri beharko diete margo oihalei, eta, horretarako, Agirre jauregiko erakusketa gelara jo beharko dute, 08:00etatik 10:30era bitartean; lanak leku berean aurkeztu beharko dituzte ondoren, 13:30ak baino lehen. Teknika librean izan arren, margo-lanek lotura izan beharko dute Debarekin, haren ingurunearekin, paisaiarekin, ondarearekin, kaleekin, kulturarekin edo uda-

lerria ordezkatzeko duen beste edozein elementurekin.

Antolatzaileek izendatutako epaimahaiaren esku egongo da erabakia, eta sari banaketa ekitaldia 14:30ean egingo dute, Agirre jauregiko erakusketa gelan. Lehiaketara aurkeztutako lanak bertan izango dira ikusgai ondorengo egunetan.

Zortzi sari izango dira jokoan: batetik, lehen saria -800 euro-, bigarrena -500 euro-, hirugarrena -350 euro- eta saritu gabeko herriko lehen sailkatua -250 euro-; bestetik, Cardenas Fundazioaren sari bereziak: laugarren saria -200 euro-, Maria Esperanza Chavarri saria, aurrez saritu gabeko akuarela onenari -300



Margolari bat, iazko lehiaketan. N.B.A.

euro-; Marques de Prado Ameno saria, teknika librean aurrez saririk jaso ez duten 21 urtez azpikoentzat -150 euro-; eta Blanca Vilallonga saria, aurrez saritu gabeko itsasoari buruzko lanik onenari eskainia -300 euro-.

Irailaren 14an jarriko dituzte salgai Euskal Jaiko bazkarirako txartelak

I.A. DEBA

Aurreko urteotako dinamikari eutsita, Zuhatza Euskaltzaleon Mugimenduak bere gain hartuko du irailaren 26an ospatuko den Euskal Jaiko herri bazkaria antolatzeko ardura, eta astelehenean, irailak 14, ekingo dio paella-janerako txartel salmentari.

Hilaren 3an egindako batzar irekiaren ostean jakinarazi zutenenez, hain zuzen, 600 lagunentzako lekua egongo da Aldats pilotalekuan, eta egunean bertan erreserbatu beharko da lekua, 11:00etatik aurrera. Nork bere janaria eraman dezake bazkaria, baina nahiago dutenek euskara elkarteko kideek prestatutako paella-platereaz gozatzeko

aukera izango dute aurten ere; oilaskoarekin eta untxiarekin egindako paella ez ezik, barazkiduna ere eskainiko dute.

350 txartel orotara

Paella-janaren prezioa 12 eurokoa da, bi euro merkeagoa Zuhatzako kideentzat, eta astelehenetik aurrera salduko dituzte txartelak, Internet bidez, labur.eus/euskal-jaiazuhatza2026 estekan, baita aurrez aurre ere, Zuhatzaren bulegoan, Ifar kalean. Lau egunez egingo dute zuzeneko salmenta: irailaren 14an eta 17an goizez -09:00etatik 13:30era- eta hilaren 15ean eta 16an arratsaldeaz -15:00etatik 19:30era-. Guztira, 350 txartel ipiniko dituzte salgai.



Kuadrilla bat, iazko bazkarian. N.B.A.

Bestalde, antolaketa lanetan aritzeko boluntarioak beharko dituztela gogorarazi dute antolatzaileek. Azaldu dutenez, datozen egunotan egingo dute laguntzaileen taldea osatzeko deialdia, ohiko bideetatik.

Ireki dute Gozatuz programarako eta aisialdi eskaintzarako izen-ematea

I.A. DEBA

2006-2027ko ikasturterako aisialdi eta eskolaz kanpoko jardueren eskaintza aurkeztu du Debako Udalak, "adin askotariko herri-tarrei aisialdiaz gozatzeko, sormena lantzeko eta harremanak euskaraz garatzeko aukerak eskaintzeko helburuarekin". Izen-ematea zabalik dago jadanik, eta irailaren 20an amaituko da.

Batetik, tailla, zeramika, defentsa pertsonala eta idazketa sortzailea lantzeko ikastaroak iragarri ditu, 17 urtetik gorakoei zuzendutako Gozatuz programaren baitan. Bestetik, 17 urtez azpikoentzat, eskolaz kanpoko jardueren eskaintza prestatu du; programazioak aisialdia, kirola, musika eta dantza, eta gaztelekua biltzen ditu. Haurren eta gazteen

aisialdiari dagokionez, Udalak zehaztu du Gozatuzek antzerkia, dantza urbanoa, pintura, sukaldaritza, defentsa pertsonala eta idazketa sortzailea eskainiko dituela, askotariko adin tartetara egokituta.

Paperean edo Internet bidez

Izena emateko eskuorriak liburutegian, udaletxean edo Turismo Bulegoan lor daitezke, eta Internet bidez ere egin daiteke matrikula. Informazio gehiagorako, jo www.deba.eus webgunera edo deitu 943 60 80 48 zenbakira.

Jai-egitarau betea izango dute Lasturko San Nikolas jaietan

I.A. ITZIAR

San Nikolas Eguna ospatu zuten atzo lasturtarrek, goizetik iluntzera iraun zuen festa giroarekin, baina aurtengo jaietarako ondu duten egitarauaren hasiera baino ez zen izan, ekitaldiz betetako egunak izango baitituzte auzoan igandera bitartean.

Gaur, irailak 11, San Nikolas Bigarrena Eguna ospatuko dute, eta haurrak izango dira protagonista, haientzako pilota lehiak, bazkaria, jolasak, buruhandiak nahiz zezen txikiak izango baitira, besteak beste. Berritasun gisa, haurren txirrindu lasterketa ere egingo dute estreinakoz, 17:30ean. Gauean, bestalde, bertso afaria izango da Lasturko tabernan, 21:00etan, Nerea Elustondo eta Andoni Egaña bertsolariarekin -Unai Izagirre ariko da gai-jartzaile-; txartelak 28 euroan lor daitezke, tabernan bertan, Gure Dendan eta Burugorrin.

Biharkoa, berriz, Bikoteen Eguna izango da; bikoteen arteko pilota partidak eta bola-txa-

pelketa, bazkaria, zezenak, jolasak, dantzak eta kantu afaria iragarri dituzte, besteren artean.

Festak etzi amaituko dira, hilak 13, Intxorpe Egunarekin; ekitaldien artean izango dira, adibidez, banakako pala finala, Indoiturri saria bolo-txapelketa, herri-kirolak nahiz Nikolas Txikiren igoera (Egitarau osoa ikusgai dago 22. orrialdean).



Lasturtarrak jai giroan, iaz. LAGATAKOA

Itziarko Eskola Txikiak eskola propio gisa hasi du 2026-2027ko ikasturtea

Nerea Bedialauneta Alkorta ITZIAR

Itziarko herritarrek urte luzez aritu dira eskola propio bat izatearen alde lanean, eta dagoneko errealitate bihurtu da aspaldiko aldarrikapena. Luza-ro ikastetxe publikoaren baitan jardun ondoren, Itziarko Eskola Txikiak bide berri bati ekin zion astelehenean: eskola propioarenari, hain zuzen.

Eta berriari ilusioz ekin diote eskolan. Maider Elustondo zuzendariak azaldu duenez, beren izaerari eta balioei eutsiz, datozen ikasturteetarako erronka nagusia eskola herritarra izaten jarraitzea da. Hau da, "komunitate osoaren arteko elkarrekintza sustatzea eta eskola ireki, parte-hartzaile eta bizia eraikitzea".



Itziarko Eskola Txikiak ikasleak, ikasturteko lehen egunean. ITZIARKO ESKOLA TXIKIA



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA
ESKAINTZA
Elgoibar. Adineko emakumea zaintzeko, etxeko langilea behar dugu. Titulu soziosanitarioa izatea eskatzen dugu. 648 20 37 75

ESKAERAK
Elgoibar. Umeak zaintzeko prest nago, arratsaldeetan, 16:00etatik aurrera. 688 609 045

Elgoibar. 2026-2027ko ikasturtean umeak zaintzeko prest nago, arratsaldeetan. Hezkuntza arloko ikasketak ditut, eta umeen zaintzan esperientzia. 671 11 17 37

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. 651 16 41 76

Elgoibar. Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. Etxeko lanak ere egiten ditut. Ikastaroak eginak dauzkat eta paperak behar bezala ditut. Umeak zaintzeko ere prest nago. 612 54 00 08

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, astegunetan zein asteburuetan. Tituluak ditut, eta paperak behar bezala. 631 02 01 69

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, astegunetan zein asteburuetan. Tituluak ditut, eta paperak behar bezala. 641 31 78 64

LOKALAK

Elgoibar. Erabat egokitutako eta xehetasunez zaindutako lokal bat alokatzen dut Elgoibarren, Errosario kalean. Ezin hobea ongizatearekin zerikusia duten lanbideetarako, kontsultak pasatzeko edo bulego profesional gisa. Sartzeko eta lanean hasteko prest dago. 667 742 118



KINTOAK

Elgoibar. 1963an jaiotako kinto bazkaria, irailaren 19an. 12:00etan Kalegoen plazan elkartuko dira argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa lbai Ondo erretegian, eta 14:45ean bazkaria izango dute, Txarridunan. Interesatuak 75 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxako ES35 3035 0007 2100 71147619 kontu-zenbakian, izen-abizenak zehaztuta.

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



ELGOIBAR
Ekia
Zorionak, Ekia, 5 urte potolo! Asko maite zaitugu!



SORALUZE
Iñaki
Zorionak, Iñaki!



SORALUZE
Iraia
Zorionak, maitea! Asko maite zaitugu!



ELGOIBAR
Ekhi
Zorionak, Ekhi! Muxu handi bat, etxekoen eta, bereziki, Kiraren partez. Maite zaitugu.



MENDARO
Jule
Zorionak, Jule! Datorren asteartean 5 urte handi beteko dituzulako, printzesa! Ondo pasatu eta muxu handi bat, etxeko guztien eta, bereziki, Xubanen partez.



SORALUZE
Oinatz
Zorionak Oinatz! Segi jator jator. Patxo handi bat etxekuen partez.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
 - Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
 - Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik



Zorion agurrek saria dute Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean Galle-Tiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: IRAIA LARRAÑAGA CASADO

Joan den asteko irabazlea!



DEBA

Zuriñe Gredilla Kareaga

2026ko abuztuaren 18an hil zen.



Eskerrik asko herria egiteagatik!



Debako Arrano Elkarte

ELGOIBAR

III. urteurrena

Ion Garate Guenaga

Katalo

2023ko abuztuaren 18an hil zen, 43 urte zituela.



Zure betiko irribarrea eta zure bihotz handia gurekin izango dira betirako.

Familia eta lagunak

ELGOIBAR

XIV. urteurrena

Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen.



Beti gure bihotzean. Maite zaitugu.

Etxekoak

Haren oroimenez, XIV. urteurreneko meza izango da domekan, irailaren 13an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliza-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

ELGOIBAR

III. urteurrena

Karmel Iriondo Gonzalez

2023ko abuztuaren 12an hil zen, 63 urte zituela.



Zu izan zarena ez da denboran galduko, malkoak eurtan bezala. Gurekin betiko.

Etxekoak



Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO: 943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 11

- **DEBA 19. Animadeba Festibala** 09:00etatik 00:00etara –17. orrialdean egitarau osoa–.
- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko: Whatsappez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **ELGOIBAR Jolasa kalera** Atxutxiamaikaren eskutik, 0 - 5 urte arteko umeentzat. Lekuederren, 16:30ean.
- **ELGOIBAR Erakusketa: Anarene** Ongarrik antolatuta, Mikel Bastidaren erakusketa. Irailaren 11tik 26ra arte, Kultur Etxean. Astelehenetik zapatura, 18:30etik 20:30era. Domeketan, itxita.
- **SORALUZE Kontzertua: The Jacintones** Asigor tabernan, 20:30ean.
- **ERMUA Extremadurako Zentroaren 35. Kultur Astea** 19:00etatik 21:00etara, Extremadurako ohiko pintxo-potea.

LARUNBATA 12

- **DEBA 57. Kaleko Margo Sariketa** 08:00etatik 10:30era, margo oihalei zigilua jarriko zaie Agirre jauregiko erakusketa gelan; egindako lanak toki berean entregatu beharko dira, 13:30ak baino lehen. 14:30ean, sari banaketa, Agirre jauregiko erakusketa gelan.
- **MENDARO Bigarren eskuko azoka** *Astindu ganbara* izenburupean. Goñati frontoian, 10:00etan.
- **DEBA 19. Animadeba Festibala** 10:00etatik 01:00etara –17. orrialdean egitarau osoa–.
- **ELGOIBAR Elgoibar BTT lasterketa** Morkaikok antolatuta. Mintxetan, 09:00etan –dorsal banaketa, 08:00etan–.
- **ITZIAR Marearteko zabalgunera bisita gidatua** Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Errotaberri parkingean, Sakonetan, 10:00etan.

- **SORALUZE Batu kantura!** Ezoziko Ama abesbatzak antolatutako tailerra. Tolarekua aretoan, 11:00etan.
- **ERMUA Extremadurako Zentroaren 35. Kultur Astea** 12:00etan, meza eta Flor de Tomillo abesbatza. 17:00etan, kuartrola txapelketa. 19:00etatik 23:00etara, *tardeoa*, Iker B-ren eskutik.
- **DEBA Oier Gurrutxagaren kontzertu interaktiboa** Oier Gurrutxaga musikariak *EH Surd & Rollin* izeneko saio bikoitza emango du. 14:30ean, emanaldi instrumentala. Eta 19:30ean, Instrumentuak eta abestiak –Alex Martinez Carpio musikariaren laguntzarekin–. Ceviche jatekxan.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat: 10 euro–. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus Irteera puntua: Anes Arrinda pasealekua (pantalana), 18:30ean.
- **SORALUZE Asier Herizen eta Iñaki Saezen omenezko oroimen ekitaldia** Bi gazteen heriotzaren 25. urteurrenean ekitaldi berezia egingo da, *Ekidin zitekeen* leloarekin.



ITZIAR Lasturko San Nikolas jaiak

OSTIRALA 11: San Nikolas Bigarraena. 11:00etan, meza. Ondoren, hamaiketakoa tabernan. 12:00etan, umeen arteko pilota partidak. 14:00etan, umeen bazkaria, tabernan. 17:30ean, umeen bizikleta lasterketa eta umeen arteko jolasak. Jarraian, Gailur Zalditegiaren erakustaldia. Arratsaldean, Elaia eta Jare trikitilariak, buruhandiak eta erraldoiak. Arratsaldea amaitzeko, 8 urtetik aurrerako umeentzako zezen txikiak, Saka ganadutegiaren eskutik, eta poneyak. 21:00etan, bertso afaria, tabernan. Gai-jartzailea: Unai Izagirre. Bertsolariak: Nerea Elustondo eta Andoni Egaña. Gauean, Enaitz Alberdi eta Julen Rueda *Erkizi* trikitilariak.

LARUNBATA 12: Bikoteen Eguna. 11:00etan, bikoteen arteko pilota partidak eta bola-txapelketa. 14:00etan, bazkaria, tabernan. 17:30ean, bikoteen arteko jolasak. Ondoren, zezenak, Albara ganadutegiaren eskutik. Jarraian, Andutz Dantza Taldearen emanaldia. Egun osoan, Maialen Larrañaga eta Ane Txapartegi trikitilariak. Gauean, kantu afaria, Beñatek eta Ugaitzek lagunduta.

IGANDEA 13: Intxorpe Eguna. 09:30ean, meza nagusia. Ondoren, hamaiketakoa, tabernan. 11:30ean, banakako pala finala, frontoian, eta bertso saioa, Unai Izagirre eta Oier Etxeberria bertsolariekin. Jarraian, bola-txapelketa –Indoiturri saria–, bertsolariek eta trikitilariak alaituta. Egun osoan, Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilariak. 14:00etan, bazkaria, tabernan. 17:00etan, Lasturko harriekin erakustaldia. Harri-jasotzen: Haritz Aranguren, Jon Marijuan, Sara Jimenez de Aberasturi eta Lucia Orbe. Aizkoran: Mikel Aguirre eta Manex Izagirre. Jarraian, bertsolarien bigarren saioa, bertako gazteen aurreku kitzikagarria, eta, San Nikolas jaiak amaitzeko, pailazoak, zezenak Saka ganadutegiaren eskutik eta Nikolas Txikiren igoera.



ELGOIBAR Ongizatearen Plaza

OSTIRALA 11: 10:00etatik 11:30era, *Gazteen ongizatea: sare-sozialekiko adikzioa, gaitasun sozialen galera, suizidioaren hautua*. 11:30etik 13:00etara, *Industriaren herria aldatzen ari da: lan mundua eta ongizatea*. 17:30etik 18:30era, *Pantailen aroan, erabilera osasuntsua*, Altxa Burua elkartarekin. 18:30etik 19:30era, *Sorkuntzak nola lagundu dezake gure ongizatean?* 19:30etik 20:00etara, Elgoibarko zaporeekin –gazta eta sagardoa– amaiera alaia.



ERMUA 21. Folkezblai jaialdia, Orbe Kardinala plazan

OSTIRALA 11: 18:30ean, Do Rives (Galizia). 19:45etan, Folk Rippers (Euskal Herria). 21:00etan, Xara (Madril).

LARUNBATA 12: 12:30ean, kalejira, Bentazarreko Mutiko Alaiak (Euskal Herria). 18:30ean, Espora (Katalunia). 19:45ean, D'Supeto (Galizia). 21:00etan, Neomak (Euskal Herria).

IGANDEA 13: 13:00etan, Folketan (Euskal Herria). 18:30ean, Talisker Band (Madril). 19:45ean, Ferla Megia (Asturias).

- Salbuespeneko espetxe politikaren ondorioak salatuko dituzte, besteak beste. Plaza Barrixan, 19:00etan.
- **DEBA Reggae kontzertua: Denjah Man** Ondargain tabernan, 19:00etan.
 - **SORALUZE Hardcore gaua: Doministikum, Storb eta Elektrikass.** Gaztetxean, 22:00etan.

IGANDEA 13

- **DEBA Mendi irteera bateratua: Saioa** Parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea. Autobus geraldokuan, 07:30ean.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Emakumeen mendi irteera: 4 ermita'** Soraluzeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udaberri eta udako egitarauaren baitan

- antolatutako ekintza. Plaza Barritik hasita, 09:30ean.
- **ELGOIBAR Lizagasar erronka** Lizagasarko sagastian. 11:00etan
 - **ITZIAR Marearteko zabalgunera bisita gidatua** Informazio gehiago eta erreserbak: geoparkea.eus. Errotaberri aparkalekuan, Sakonetan, 11:00etan.
 - **ERMUA Extremadurako Zentroaren 35. Kultur Astea** 12:30ean, Extremadurari eskainitako emanaldia, Jose Cobosen eskutik. 14:30ean, elkartasun bazkaria, bazkide, agintari eta gonbidatuentzat. Extremadurako Zentroan.

ASTELEHENA 14

- **ERMUA Pintura erakusketa: 'Kolorearen**

memoria' Lobiano Kulturunean, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara. Asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara.

• **SORALUZE Erakusketa: Baroja Colleten 'Osatu gabea'** Baroja Collet eskultore eta grabatzailearen lanak erakusgai egongo dira Oreka Art galerian, irailaren 18ra arte, 19:00etan.

ASTEARTEA 15

- **ELGOIBAR** Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua Merlin Medinarekin. Bakarkako saioak. Doan. Beharrezkoa da aurretik hitzordua hartzea: 688 64 09 83. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 16:00etatik 19:00etara.
- **ELGOIBAR** Ludotekaren irekiera Ludotekan, 16:30ean.

ASTEAZKENA 16

- **SORALUZE** Nagusien Kontseilua Hileroko bilera egiteko bilduko da. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **ELGOIBAR** Gaztelekuaren irekiera Ikasturte berria hasiko dute Udal Gaztelekuan, 17:00etan.
- **SORALUZE** Nekazaritza eremuko uren inguruko bilera Gaiak: Soraluzeko egoera zein den ezagutu eta partekatu. Herri zein herrialde mailan egindako eskaerak era kolektiboan bideratzea. Gipuzkoako EHNEk antolatutako herri arteko batzarretan



40 Minutu Rock jaialdia. ©AITZOL_PHOTO

SORALUZE Mesedeetako jaiak, Errekalde auzoan

OSTIRALA 18: 18:00etan, txupinazoa eta txokolate-jana. 18:30ean, Soraluzeko dantza eskola. 19:00etan, txorizo dastaketa. 21:00etan, Konbo Itxaropena taldea. 23:00etan, EH Sukarra musika taldea. 01:00etan, karaokea.

LARUNBATA 19: 11:00etan, puzgarriak. 13:00etan, toka txapelketa –izen-ematea, 1 euro–. 14:30ean, herritarrentzako bazkaria –txartelak salgai Asigorreren eta Iratxon–. 16:30ean, tute txapelketa –izen-ematea, 10 euro bikoteko–. 17:00etan, hiruko areto futbol txapelketa –2014-2015 eta 2016-2017 urteak–. 17:00etan, umeentzako jolasak, Kukumixorekin. 19:00etan, zezen mekanikoa. 19:00etan, mahai-futbol txapelketa –izen-ematea, 10 euro bikoteko–. 19:30ean, Duo Amanecer rantxeren musika taldea. 22:30ean, Ahantzi erromeria taldea. 22:30ean, mus txapelketa –izen-ematea, 10 euro bikoteko–. 01:00etan, Trujen eta Estrujenak.

IGANDEA 20: 11:30ean, lehiaketarako patata-tortillak aurkeztu. 12:00etan, buruhandiak eta erraldoiak. 13:00etan, plaza dantza herrikoiak. 13:00etan, toka txapelketa –izen-ematea, 1 euro–. 13:30ean, otarrainxka eta patata tortillen dastaketa eta sari-banaketa. 13:30ean, apar festa. 15:00etan, jaien amaiera.

parte hartzea. Antzokian, 18:30ean.

OSTEGUNA 17

- **DEBA** Hitzaldia: 'Demencias, entender, prevenir y cuidar' Arbil elkarte sozialak antolatuta. Hizlaria: Jose Felix Marti Masso. Kultur Elkartean, 11:00etan.
- **ELGOIBAR** Lila Sariak Lila Sariak banatuko ditu Udalak. Lila emakumeen etxean, 18:30ean.

OSTIRALA 18

- **ELGOIBAR** Sotoko Hotsak: Sototik arkupea Sinuosek antolatuta. Xabier Badiolaren eta Gailuren kontzertuak. Aita Agirren, 19:00etan.
- **MENDARO** Master Laboral Kutxa torneo Udako eskuz binakako Master Laboral Kutxa torneo jokatu da. Urrezko Ligaren barruan, gazte eta elite mailak.

- Goñati pilotalekuan, 19:00etan.
- **ERMUA** Bertso saioa Kaltxangon Euskaltegiaren matrikulazio kanpaina girotzeko bertso saioa. Gai-jartzailea: Leire Vargas. Bertsolariak: Onintza Enbeita eta Oihana Arana. Kaltxango euskaltegian, 19:00etan.
 - **ERMUA** ZirKuSS taldearen ikuskizuna: 'Sustrai' Prezioa: 12 euro. Ermua antzokian, 20:30ean.

Probidentzia Andra Mari ikastetxea
www.aldatze.eus

B eredua

aldatz

Eibar

943 70 11 50 / aldatze@aldatze.org

Barrena⁺
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

GUARDIAKO FARMAZIAK	
11 BARIKUA Arriola / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri	
12 ZAPATUA Fernandez / *Barrenetxea / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri / *I. Ugarte	
13 DOMEKA Fernandez / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri	
14 ASTELEHENA Yudego / A. Zalduegi / M. Alves	
15 MARTITZENA Oruesagasti / A. Zalduegi / I. Lecumberri	
16 EGUAZTENA Barrenetxea / A. Zalduegi / A.M. Baz	
17 EGUENA Soto / A. Zalduegi / I. Ugarte	
18 BARIKUA Garitaonandia / H. Burgoa / A.M. Baz	
*09:00-14:00 / *09:00-13:30	
2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:	
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30	
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00	
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00	
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00	
Itziarko botikina: 09:00-12:30	
GUARDIA ORDUTEGIAK	
Egunez: 09:00-22:00	
Gauetz: 22:00-09:00	
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)	
Larunbatak:	
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00	
Deba-Mutriku: 09:30-13:00	
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30	
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00	
FARMAZIAK	
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01	
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90	
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40	
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77	
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77	
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93	
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03	
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66	
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54	
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97	
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26	
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14	
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42	
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92	
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97	
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38	
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84	

ZINEMA	
ELGOIBAR	
HERRIKO ANTZOKIA	
'Palestina 36'	
(Iñaki Agirre zinemaldia)	
Osteguna, 17: 21:00.	
Ostirala, 17: 19:00.	
ERMUA	
ERMUA ANTZOKIA	
'Caso 137'	
Larunbata, 12: 19:30.	
Astelehena, 14: 20:30.	
'La constelación del perro'	
Larunbata, 12: 22:00.	
Igandea, 13: 19:30.	
'Toy Story 5'	
Igandea, 13: 17:00.	
'Ivan & Hadoum'	
Osteguna, 17: 20:30.	
EIBAR	
COLISEO ANTZOKIA	
'El ser querido'	
Larunbata, 12: 16:30, 19:30, 22:30.	
Igandea, 13: 17:00, 20:00.	
Astelehena, 14: 19:30.	

'Cronos'	
Larunbata, 12: 17:00, 19:45, 22:30.	
Igandea, 13: 17:00, 20:00.	
Astelehena, 14: 19:30.	
'Cinco segundos'	
Larunbata, 12: 19:45, 22:30.	
Igandea, 13: 20:00.	
Astelehena, 14: 19:30.	
'Kangaroo. Una aventura en Australia'	
Larunbata, 12: 17:00.	
Igandea, 13: 17:00.	
DEBA	
KULTUR ELKARTEA	
'Incontrolable'	
Igandea, 13: 19:00.	
'El ser querido' filma.	

Ane Bastida debarrak irabazi du BARRENAren Udako Argazkien I. Lehiaketa

Debabarrendarrek 136 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA 'Nondik nora ibili dira debabarrendarrak uda sasoiari?', galdera horixe jaurti zuen BARRENAk uztailearen amaiera aldera, debabarrendarrei euren argazkiak Udako I. Argazki Lehiaketara bidaltzeko dei egiteko. Harrezkero, dozenaka herritarrek erantzun diote dei hari, eta udan egindako argazkirik kuttunenak aurkeztu dituzte, zehazki 136. Lehen edizio honetan, berrogei argazkizalek parte hartu dute, bailarako sei herritakoak: Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendara eta Deba.

Udako oporrak garai aproposa dira begiak zorroztu eta argazki ederrak ateratzeko. Argazkietan askotariko lekuak eta gaiak ageri dira, baina, zalantzarik gabe, natura erretratatu dute argazkizaleek gehien: mendiak, zerua, hondartzak, desertuak, glaziarrek, sumendiak, lakuak, arroiak, animaliak... Horiez gain, izan dira, noski, kameraren objektiboa beste norabait zuzendu dutenak ere, eta herriak, errepideak, monumentuak... erretratatu dituzte. Argazkiak hiru

kontinentetan zehar ateratakoak izan dira: Europa, Asia eta Ipar Amerika.

Lehen saria Debara

BARRENAk ibilbide luzeko bi argazkilari izendatu ditu lehiaketan epaile lanak egiteko -G. Ariznabarreta eta M. Valero-, eta, haiek aitortu dutenez, "ez da batere lan erraza izan hainbeste argazkiren artetik zein saritu erabakitzea". Epaileek argazkien kalitatea eta originaltasuna saritu dituzte, eta baita argazkian Debabarreneko pertsonak agertzea ere. Hala, lehen saria Ane Itziar Bastida Lizaso debarraren *Olatuen eta asfaltoaren artean* izeneko argazkiari eman diote. Epaimahaiakoeen ustez, argazkia "originala da, konposizio zaindua du eta modu sortzailean aukeratu da". Horrez gain, epaileek nabarmendu dutenez, "surflariaren horma-irudi indartsuak jolas bisuala egiten du barrenean agertzen den skaterren irudiarekin".

Argazkiaren egileak azaldu duenez, argazkia Deban bertan ateratu zuen, mugikorrarekin, surf egitera zihoan egun batez.



Olatuen eta asfaltoaren artean (lehen saria). ANE BASTIDA

"Itsasora bidean nindoala, umeak ikusi nituen jolasean, eta oso irudi polita iruditu zitzaidan", adierazi du. Bastida argazkiak ateratu zalea da, eta gustura jaso du saria: datatze-menua bi pertsonarentzat Elgoibarko Gabi jatetxean.

Bigarren saria Soraluzera

Bigarren saria Ainara Juaristi soraluzetarrak jaso du, beste bi lagunekin batera Azoreetan laku baten ondoan ateratu zuen argazkiarekin. Epaimahaiaren ustez, egileak "bete-betea asmatu du gaiarekin" eta argazkiak "udako sentsazio positiboak transmititzen ditu". Soraluzetarrak argazki asko ateratu dituzte Azoreetan. "Leku zoragarria da. Sentitu naiz pelikula batean bezala". Aitor duenez, gustatzen zaio argazkiak ateratzea mugikorrarekin eta argazki kamerarekin:

"Batez ere, naturako gauzei: animalia txikiei, euri-tantei...". Juaristik bi bonu irabazi ditu Iparsurf eskolaren surf ikas-taro batean parte hartzeko.

Publikoaren saria Elgoibarrera

Hirugarren saria, publikoarena, Barrena.eus-eko irakurleek

2026-09-11
OSTIRALA



Hiru lagun Azoreetako laku batean (bigarren saria). AINARA JUARISTI

aukeratu dute. Irakurleek ehun eta hogeita hamar boto eman dituzte, eta, horien artetik, Monument Valleyko (Utah) errepide batean ateratako argazki batek jaso ditu boto gehien. Argazkia Igor Torres elgoibartarrarena da; Errigoren saski bat jasoko du.



Neska-mutikoak Monument Valleyko errepidean (publikoaren saria). IGOR TORRES

Irailak berri usaina dakar.
Bueltan dira Kiaren 10 Egunak.
Irailaren 10etik 21era.

KIA



Naia Car

Apalategi Auzoa, 1, Eibar | 943 707 033 | www.gruponaiacar.com

Irteerak honen hondoko irudiak AA bitartez sortu dira eta helburu ilustratiboa dute.

ICE: WLTP CO₂ emisio konbinatuak (g/km): 135-170. WLTP konsumo konbinatua (l/100km): 6-7,5. Kontultatu sustapeneren baldintzak eta gainerako baldintzak hemen: www.kia.com. Eskaintzak Perintsutako, Balez Uhartetako, Ceutako, Melillako eta Andamako Kia kontesionarioen sarean balio du.

